

Andoain

Merkataritza Biziberritzeko Planaren eguneratzea



PLANGINTZA FASEA

Jarduera eremuak, proposamenak eta ekintzak

2017ko abendua



AURKIBIDEA

0 Aurkezpena eta egitura.....	3.
1. eremua: Andoingo merkataritza eta ostalaritza eremuaren antolaketa urbanistikoa hobetzea	8.
Jarduera proposamena 1.1. Aparkaleku sistemarako ekintzak.....	10.
Jarduera proposamena 1.2. Bide-sistemarako ekintzak	14.
Jarduera proposamena 1.3. Oinezkoen sistemarako ekintzak	18.
Jarduera proposamena 1.4. Gune libreen sistemarako ekintzak	26.
Jarduera proposamena 1.5. MOE barneko lokal hutsen okupazioa sustatzeko ekintzak.....	30.
2. eremua: Merkataritza-dotazioa eta bere eszenatokia zabaldu eta hobetzea	33.
Jarduera proposamena 2.1. Merkataritza eta ostalaritza paisaian eragitera zuzendutako ekintzak.....	34.
Jarduera proposamena 2.2. Merkataritza eta ostalaritza dotazioa eta bere eszenatokia zabaldu eta hobetzeko ekintzak	40.
3. eremua: Komunikazio eta dinamizazio sozio-komertziala	49.
Jarduera proposamena 3.1. Sustapen eta fidelizazio ekintzak	50.
Jarduera proposamena 3.2. Merkataritza hedatu eta komunikatzeko ekintzak	57.
Jarduera proposamena 3.3. Bezeroei erosketak errazteko ekintzak	66.
Jarduera proposamena 3.4. Asteburuetan merkataritza sustatu eta azokako jarduera aztertzeke ekintzak.....	70.
4. eremua: Sektoreko profesionalen prestakuntza eta birziklapena	75.
Jarduera proposamena 4.1. Prestakuntza sustatu, hobetu eta bere jarraipena egitera zuzendutako ekintzak	76.
Jarduera proposamena 4.2. Formazio-eskaintza berriak sortzearekin loturiko ekintzak	80.
5. eremua: Merkataritza asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea	83.
Jarduera proposamena 5.1. Elkartearen funtzionamendua eta egitura sendotzera zuzendutako ekintzak	84.
Jarduera proposamena 5.2. Bazkideei eskaini beharreko zerbitzuekin loturiko ekintzak	90.
Jarduera proposamena 5.3. Sektorea eta asoziazionismoa sustatzeko ekintzak.....	93.
6. eremua: Eragileen sentsibilizazioa, artikulazioa eta inplikazioa	97.
Jarduera proposamena 6.1. Eragile publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzeko ekintzak.....	98.
Jarduera proposamena 6.2. Sektorearen errekonozimendua eta lankidetzaren sustatzeko ekintzak.....	101.
Jarduera proposamena 6.3. Andoingo PERCO-MIPBaren komunikazio eta dinamizazioarekin loturiko ekintzak	104.
7 Aurrekontuaren ikuspegia.....	107.
8 Ekintzen exekuzio adierazleak.....	113.

0

Aurkezpena eta egitura

Andoain 2017ko PERCO-MIPBaren plangintza fasea jasotzen duen dokumentu honetan, planifikatutako ekintzak, ondorengo jarduera-eremuen arabera antolatuta aurkezten dira:

1. Jarduera-eremua

MERKATARITZAKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA HOBETZEA

2. Jarduera-eremua

MERKATARITZA-DOTAZIOA ETA BERE ESZENATOKIA ZABALDU ETA HOBETZEA

3. Jarduera-eremua

KOMUNIKAZIO ETA DINAMIZAZIO SOZIO-KOMERTZIALA

4. Jarduera-eremua

SEKTOREKO PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA ETA BIRZIKLAPENA

5. Jarduera-eremua

MERKATARITZA ASOZIAZIONISMOA SUSTATU ETA BULTZATZEA

6. Jarduera-eremua

ERAGILEEN SENTSIBILIZAZIOA, ARTIKULAZIOA ETA INPLIKAZIOA

Eremu bakoitzean, jarduera-proposamen desberdinak aurkezten dira, horien atzean dagoen planteamendua azalduz. Ondoren, Jarduera-eremu bakoitzaren baitan ekintza zehatz desberdinak proposatzen dira. Ekintza horiek zehazteko ondorengo alderdiak lantzen dira: azalpena, duten lehentasuna, aurreikusitako aurrekontua eta zuzenean nahiz zeharka inplikatutako eragileak.

Jarraian, Andoaingo MIBP-PERCOaren Plangintza-fasearen egitura orokorra agertzen da:

Eremuak	Proposamenak	Ekintza kopurua	
1	Merkataritzako hirigintza-antolamendua hobetzea	1.1 Aparkaleku sistemarako ekintzak	1.1.1. Merkataritza eta ostalaritza eremuaren ipar erdialdean erosketa momenturako aparkaldi mugatuko gunek ezartzea
		1.2 Bide-sistemarako ekintzak	1.2.1. Ondarreta ingurunea eta Doktor Huizi kalearen arteko bide sistemaren lotura gauzatu
		1.3 Oinezkoen sistemarako ekintzak	1.3.1. Kale nagusiko oinezko sistemaren baldintzak hobetu, Agustin Leitza eta Juan Bautista Erro kaleen artean 1.3.2. Juan Bautista Erro kaleko oinezko sistemaren baldintzak hobetu
		1.4 Gune librean sistemarako ekintzak	1.4.1. Goiko plazako eremu bat estali, gune libre honen erabilera, eta zeharka, ostalaritza eta merkataritza inguruko dinamika bultzatzeko
		1.5 MOE barneko lokal hutsen okupazioa sustatzeko ekintzak	1.5.1. Merkataritza eta ostalaritza jarduerak gehien eragiten duen eremuaren barneko lokal hutsen okupazioa sustatu
		5 proposamen	
2	Merkataritza-dotazioa eta bere eszenatokia zabaldu eta hobetzea	2.1 Merkataritza eta ostalaritza paisaian eragitera zuzendutako ekintzak	2.1.1. Merkataritza eta ostalaritza eremuan kokatutako eraikinen fatxaden eta lokal hutsen irudia hobetu eta berritzatzeko Programa bat bultzatzea 2.1.2. Eremu edo kale komertzialak identifikatu eta tratamendu estetiko bateratuarekin bereizteko aukera aztertzea 2.1.3. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen eremurako berariazko seinaleetika bat diseinatu eta jartzea, herriko beste baliabide eta ekimenekin lotura izango duena 2.1.4. Merkataritza eta ostalaritza jardueran eragiten duten araudien funtzionamendua aztertu eta hausnarketa egiteko, foro edo lan eremu bat sortzea
		2.2 Merkataritza eta ostalaritza dotazioa eta bere eszenatokia zabaldu eta hobetzeko ekintzak	2.2.1. Egungo eskaintzaren osagarri izan daitezkeen merkataritza establezimendu berriak irekitzeko "sustapen-dinamizazio" Programa abian jartzea 2.2.2. Hutsik dauden lokalen zentsua eguneratu eta osatzeko sistema bermatzea 2.2.3. Hutsik dauden lokalen erabilera komertziala laguntzeko programak eta neurriak garatzea 2.2.4. Kaleko beheko solairuetan dauden merkataritza lokalak, hirugarren sektoreko jarduerekin okupatzeko neurriak hartzea 2.2.5. Establezimenduak berritzeko, laguntza eta aholkularitza pertsonalizatuko programa garatzea 2.2.6. Belaunaldi-erreleboa arriskuan dagoen negozioen okupazioa mantentzera zuzenduta, jarraipen eta bitartekaritza zerbitzua eskaintzea: Berriz Enpresa Programa baliatu
2 proposamen		10 ekintza	

Eremuak	Proposamenak	Ekintza kopurua
3 Komunikazio eta dinamizazio sozio-komertziala	3.1 Sustapen eta fidelizazio ekintzak	<p>3.1.1. Andoain Txartela sustatzea: Txartela dutenen kopurua handitu eta Txartelaren funtzionaltasuna areagotzea</p> <p>3.1.2. Marketineko Informazio Sistema (MIS) bat sortzea, Andoain Txartelarekin lotuta eta komunikazio eta sustapen estrategien garapen sistematikoa</p> <p>3.1.3. Urteroko sustapen sozio-komertzialen programa bat osatzea, Andoain Txartelaren MISrekin lotuta</p> <p>3.1.4. Erakunde eta establezimenduen arteko akordioetan oinarrituta, bezeroen talde zehatzak erakartzeko sustapen neurriak bultzatzea</p>
	3.2 Merkataritza hedatu eta komunikatzeko ekintzak	<p>3.2.1. Kale-dinamizaziorako ekintzak planifikatu eta garatzea</p> <p>3.2.2. Andoingo gida-plano komertziala etengabe eguneratu, informazioan "sakondu" eta zabaltzea</p> <p>3.2.3. Andoingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuek komunikabideetan presentzia izan eta horien bidez hedatu daitezen estrategia lantzea</p> <p>3.2.4. Andoingo merkataritza eta ostalaritzan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gara daitezen laguntzea</p> <p>3.2.5. Merkataritza eta ostalaritza harremanetan euskararen erabilera sustatzea</p> <p>3.2.6. Andoingo herri bizitzarekin eta herriko establezimenduen ezaugarri bereizgarriekin lotuta, herrian erosi eta kontsumitzeko sustapen kanpainak</p>
	3.3 Bezeroei erosketak errazteko ekintzak	<p>3.3.1. Bezeroei zuzendutako zerbitzu osagarriak antolatzeke aukera aztertzea</p> <p>3.3.2. Merkataritza ordutegia erosketara ohitura berrietara egokitu eta astegun batean «erosketa eguna» ezartzea</p>
	3.4 Asteburuetan merkataritza sustatu eta azokako jarduera aztertzeke ekintzak	<p>3.4.1. Asteburuetako jarduera sozio-komertziala dinamizatzeko plana diseinatzea</p> <p>3.4.2. Azoka-jarduera eta astearte eta larunbateko azoka txikien azterketa eta planifikazioa</p> <p>3.4.3. Merkataritza eta zerbitzu sektorearekin eta dinamika soziokomunitarioarekin lotuta, ostalaritza sustatzeko ekintzen programa</p>
	4 proposamenak	15 ekintza

Eremuak		Proposamenak	Ekintza kopurua
4	Sektoreko profesionalen prestakuntza eta birziklapena	4.1 Prestakuntza sustatu, hobetu eta bere jarraipena egitera zuzendutako ekintzak	4.1.1. Prestakuntzaren aldeko sentsibilizazio-motibazio programa garatzea 4.1.2. Prestakuntza-formatu berriak, ebaluazio eta etengabeko hobekuntza sistemak aplikatuz
		4.2 Formazio-eskaintza berriak sortzearekin loturiko ekintzak	4.2.1. Formakuntza beharren azterketa egitea eta horien etengabeko jarraipena egiteko behatokia sortzea 4.2.2. Etengabeko prestakuntza programak diseinatzea
		2 proposamen	4 ekintza
5	Merkataritza asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea	5.1 Elkartearen funtzionamendua eta egitura sendotzera zuzendutako ekintzak	5.1.1. Establezimenduen artean Salkin sustatzea: bazkide berriak erakartzea 5.1.2. Salkin Elkartearen antolaketa eta kudeaketa egitura indartzea 5.1.3. Salkin Elkartearen autofinantziazio-maila handitzea 5.1.4. Ostalaritza sektorearen presentzia eta parte hartzea sendotu eta sustatzea
		5.2 Bazkideei eskaini beharreko zerbitzuekin loturiko ekintzak	5.2.1. «Erosketen zentral» baten moduko zerbitzua sortzeko aukera aztertzea 5.2.2. Bazkide diren komertzioei zuzendutako zerbitzuen eskaintza edo tipologia bat definitzea
		5.3 Sektorea eta asoziazionismoa sustatzeko ekintzak	5.3.1. IKT-ek baliatuta, Salkin Elkartearen komunikazioa hobetu eta sustatzea: web orria sortzeko aukera eta sare sozialen presentzia iraunkorra sustatzea 5.3.2. Bazkide diren establezimenduentzat, Merchandising bateratua garatzea
		3 proposamen	8 ekintza
6	Eragileen sentsibilizazioa, artikulazioa eta inplikazioa	6.1 Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzeko ekintzak.	6.1.1. Andoingo Merkataritza Mahaiaren funtzionamenduari jarraipena eman eta berau sustatzea 6.1.2. Jarduera soziokulturalak, turistikoak eta azoka izaerakok modu integrarean programatzeko plataforma publiko-pribatua sortzea (Batzorde modura)
		6.2 Sektorearen errekonozimendua eta lankidetzak sustatzeko ekintzak.	6.2.1. Herriko establezimenduen eskaintza eta jarduera errekonozitu eta gizarteratzeko ekimenak antolatzea, baita bezeroen fideltasuna ere 6.2.2. Herriko establezimenduen eskaintza eta jarduera errekonozitu eta gizarteratzeko ekimenak antolatzea, baita bezeroen fideltasuna ere
		6.3 Andoingo PERCO-MIPBaren komunikazio eta dinamizazioarekin loturiko ekintzak	6.3.1. Andoingo PERCO-MIPBaren erakusketa publikoa antolatu eta bideratzea 6.3.2. PERCO-MIPBaren kudeaketa eta jarraipenerako eragileak dinamizatu eta artikulatzea
		3 proposamen	6 ekintza
		GUZTIRA 19 proposamen	GUZTIRA 49 ekintza

1. eremua

Andoaingo merkataritza eta ostalaritza eremuaren
antolaketa urbanistikoa hobetzea

Jarduera-eremu honetan egiten diren planteamendu eta proposamen bitartez, ondoko helburuak lortu nahi dira:

- ▶ Herri guneko zonalde eta merkataritza eremuaren arteko oinezkoen ibilbideak hobetzea.
- ▶ Dentsitate-komertzial handieneko eremuan, ibilgailuen trafikoaren, aparkalekuen eta oinezkoentzako pasabideen arteko bateragarritasuna lortzea.
- ▶ Merkataritza jarduerak gehien eragiten duen eremuan dauden espazio publikoen erabilera indartu eta promozionatu, aisialdirako, erosketetarako eta oro har Andoain erdiguneko dinamika sozio-komunitarioa ahalik eta erakargarrien bihurtuz.
- ▶ Dentsitate-komertzial handieneko eremutik ahalik eta gertuen, erosketa momentuetara mugatuak egongo diren aparkalekuak ezartzea.

Jarduera proposamena 1.1.

Aparkaleku sistemarako ekintzak

Planteamendua

Honakoa da helburua: herri guneko merkataritza eta ostalaritza (MOE) eremuaren inguruan, erreferentziazko aparkalekuen hornidura modu homogeneoan garatzea.

Horretarako, ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:

- ▶ Erdiguneko erreferentziazko aparkalekuak, MOE hegoaldeko ertzean kokatzen dira nagusiki.
- ▶ Eremu honen barruan, Goiko aldea, aparkaleku hauetatik baztertua dago, bai distantziagatik eta bai kota desberdintasunagatik.
- ▶ Erosketak gehien egiten diren momentuetarako, erreferentziazko aparkalekuen gabezi gehien dagoen tokietan aparkaldi mugatuko guneak ezartzea proposatzen da. Aparkatze ekintza batzuk erosketak momentuarekin soilik erlazionatuta daudela, ekintza horiek asteko egun eta ordutegi jakin batzuetan kontzentratzen direla eta gehienez ordu eta erdi irauten dutela kontuan hartuta.
- ▶ Doako aparkalekuen hornidura bermatu nahi da, gutxienezko aukera izateko, azalera handien eskaintzaren estrategiaren aurrean.
- ▶ Erreferentziazko aparkalekuen pertzepzioa eta funtzionaltasuna, seinaleetika sistema egoki baten bitartez hobetu beharko litzateke.
- ▶ Ekintza eraginkorra izateko, erosketak ekintzak gauzatzeko beharrezkoa den denbora eta aparkaldiaren iraupenaren arteko egokitzapena lortu behar da.

1.1.1.


Merkataritza eta ostalaritza eremuaren ipar erdialdean erosketa momenturako aparkaldi mugatuko guneak ezartzea

Azalpena

Helburua ondokoa da: Goiko aldeko jarduera komertzialari egokitutako erreferentziako aparkalekuak eskaintzea.


- Rikardo Arregi kaleko 4 plazetan, aparkaldi denbora ordu eta erdira mugatzea.
- Pio Baroja kalean, Agustin Leitza eta Rikardo Arregi kaleen arteko tartean, dauden 12 plazetan aparkaldi denbora ordu eta erdira mugatzea.
- Juan Bautista Erro kaleko 11 plazetan, aparkaldi denbora ordu eta erdira mugatzea.
- Denbora mugaketa, eguerdi aldean eta gauetz indargabetuko litzateke.








Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Gune Aktiboak proiektuko eragileak

Jarduera proposamena 1.2.

Bide-sistamarako ekintzak

Planteamendua

Helburua ondoko hau litzateke: MOE inguruan, eta batez ere Goiko aldea inguruan, gauzatzen diren birzirkulazio ibilbideen luzera murriztu eta bide batez herri guneko ibilbide sistemaren egitura malgotu.

Horretarako, ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:

- ▶ MOE barruko bide sistemak egitura eskasa du, sinpletasun honek trafikoaren dibertsifikazioa eragozten duelarik.
- ▶ Merkataritza eta ostalaritza eremuko jardueraren funtzionaltasuna optimizatzeko ezinbestekoa da inguruan birzirkulatzeko sistema eraginkor bat izatea.


1.2.1.

Ondarreta ingurunea eta Doktor Huizi kalearen arteko bide sistemaren lotura gauzatu

Azalpena

Ekintza honen bitartez, merkataritza eta ostalaritza eremuaren ipar erdialdearen inguruan birzirkulazio ibilbidea hobetzea lortu nahi da. Horretarako, ondorengoak hartu behar dira kontuan:

- Ondarreta ingurunetik habiatu eta Doktor Huizi kalearekin lotura izango duen norabide bakarreko bidea eraikitzea proposatzen da.
- Ibilbide hau egiteko N-1 errepidera irteteko beharra saihestu nahi da.
- Proiektuak azterketa tekniko sakonago bat eskatzen badu ere, lotura egiteko abiapuntu bezala bi aukera aurreikusten dira; Txistoki pasealekutik edo Ondarreta kaletik. Txistoki pasealekutik errepidearen malda %12koa izango litzateke eta Ondarreta kaletik %7,5a.
- Birzirkulazio ibilbide hau Ondarretatik hasi eta Doktor Huizi, Rikardo Arregi, Agustin Leitza, kale Nagusia eta kale Berriatik zehar pasako litzateke.
- Ibilbide berriaren distantzia 1.500 metrotakoa izango litzateke, egungo 2.400 metroko ibilbidearen aurrean, distantzia %40a murriztuz.





Ibilgailuen sistema merkataritza eta ostalaritza eremuetan

Ardatz nagusiak

- Zumea kalea / Kale Berria / Juan Bautista Erro / Kale nagusia / Kaletxiki
- Txistoki pasealekua
- Rikardo Arregi / Agustin Leitza

Bigarren mailako ardatzak

- Doktor Huizi / Balkoain / Agustin Leitza / Kale Nagusia
- Agustin Leitza / Pio Baroja / Ricardo Arregi

Merkataritza establezimenduen %75ak gehien eragiten duen eremua

Ostalaritza establezimenduen %75ak gehien eragiten duen eremua



Merkataritza eta ostalaritza eremuak berrantolatzea sistema

Bertzirkulazio ibilbideak Ondarreta ingurunea eta Doktor Huizi kalearen arteko lotura

- [Image of street scene 1]
- [Image of street scene 2]
- [Image of street scene 3]




Merkataritza eta ostalaritza eremuak berrantolatzea sistema


Bertzirkulazio ibilbideak Txistoki pasealekua eta Doktor Huizi kalearen arteko lotura

Distantzia: 200 metro
Malda: %12
Zabalera: 4 metro

- [Image of street scene 1]
- [Image of street scene 3]



Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Gune Aktiboak proiektuko eragileak
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza

Jarduera proposamena 1.3.

Oinezkoen sistemarako ekintzak

Planteamendua

Helburuak ondokoak dira: MOE eremuaren barruan, oinezko sistemaren baldintzak hobetu, ingurune hau osatzen duten zonalde desberdinen arteko artikulazioan gaur egun dauden etenak osatuz.

Izan ere, helburu honen atzetik, ondoko arrazoiak aurkitzen dira:

- ▶ MOE barnean, oinezko sisteman dauden artikulazio hutsuneek, merkataritza eta ostalaritza jarduera baldintzatzen dute, zonalde desberdinen artean desoreka sortuz.
- ▶ MOE barnean, espalioen ezaugarri orokorreari dagokionez, desoreka nabarmena dago, ipar erdialde eta hego erdialdearen artean.
- ▶ Artikulazio hutsune hauek zuzendu ezean, MOE jardueraren bilakaera gaur egungo eremutik kanpo lekualdatzeko arrisku handia aurreikusten da, epe motz eta ertainera.
- ▶ Aurreikuspen hauek beteko balira, Andoaingo herri guneko bizitoki zonalde gehiengoaren eta merkataritza eta ostalaritza jarduera eremuaren arteko bereizketa guztiz desegokia gauzatuko litzateke.
- ▶ Eten hauek sortzen dituzten eragozpenak gainditzeko, ezinbestekoa da ibilgailuen sisteman aldaketak eragitea, hain zuzen ere, Kale Nagusiko ibilbidean norabide bakarra ezarri.

1.3.1.


Kale nagusiko oinezko sistemaren baldintzak hobetu, Agustin Leitza eta Juan Bautista Erro kaleen artean


Azalpena

Ekintza honen helburua, MOE barruko oinezkoen sisteman, Kale Nagusiko espaloien zabalera eskasak sortzen duen etena konpontzea da, Juan Bautista Erro eta Agustin Leitza kaleen arteko zatian hain zuzen ere. Honen atzetik dauden arrazoiak eta horiei aurre egiteko planteatzen diren proposamenak ondorengoak dira:

- Kale nagusian, Juan Bautista Erro eta Agustin Leitza kaleen arteko zatian, espaloiak duen zabalera guztiz desegokia da, batez ere ardatz hau merkataritza eta ostalaritza eremuko oinezkoen ardatz nagusia dela kontuan hartuta.
- Errepidean norabide bakarra ezartzea proposatzen da, ibilgailuentzako 4 metroko zabalera izango duen bidea egokituz.
- Kale nagusian behetik gorako zentzuan, ezkerraldeko espaloia zabalduko litzateke, eskuin aldekoa dagoen bezala mantenduz.
- Ezkerraldeko espaloiarene zabalera 4,30 metro ingurukoa izatera pasako litzateke, egungo zabalera ia hirukoiztuz.







1.3.2.


Juan Bautista Erro kaleko oinezko sistemaren baldintzak hobetu


Azalpena


Ekintza honen helburua, MOE erdiguneko oinezko sistemaren artikulazio maila zabaltzea da, gaur egun ardatz bakar batean hierarkizatutako eremuari malgutasun gehiago eskainiz.

Honen atzetik dauden arrazoiak eta horiei aurre egiteko proposamenak ondorengoak dira:

- Juan Bautista Erro kalea ibilbide naturala da, bai tren geltokitik, bai Leizar eta Galardi auzoetatik, MOE-ra hurbiltzen diren fluxuentzako.
- Klean, zirkulazio sistemaren eragina oso altua da, oinezkoen sistemari nabarmen gailentzen zaiolarik, beraz baldintza hauek ez datoz bat kaleak herri guneko egituren duen funtzionaltasunarekin.
- Kaleko oinezko sistemaren baldintzak hobetuz gero kale Berriaren zati bat behintzat eta tren geltokiko parkearen eremua, MOE barnean integratzeko aukerak indartuko lirateke, bide batez, gaur egungo merkataritza eta ostalaritza eremuaren zabalera handituz.
- Errepidean norabide bakarra ezartzea proposatzen da, ibilgailuentzako 4 metroko zabalera izango duen bidea egokituz.
- Juan Bautista Erro kaleko ezker aldeko espaloia, kale nagusirako zentzuan, zabalduko litzateke, eskuin aldekoa dagoen bezala mantenduz.
- Ezker aldeko espaloia zabalera 5,40 metro ingurukoa izatera pasako litzateke.







Jarduera proposamena 1.4.

Gune libreen sistemarako ekintzak

Planteamendua

Helburua, gune libreen erabilera sustatzea da, erreferentziako espazioaren izaera indartzen duten ezaugarriez hornituz eta bizitza sozio-komunitarioaren dinamikarentzako erakargarriagoak eginez.

Proposamen hauen atzetik, ondorengo arrazoiak daude:

- ▶ MOE barnean dagoen erreferentziako gune bakarra Goiko plaza da. Historikoki Andoain erdiguneko erreferentziako espazio publiko nagusia izan da, eta gaur egun, espazioaren azalera eta oro har bere balio-aniztasuna kontuan hartzen baditugu, nagusitasun hori mantentzeko baldintza guztiak betetzen ditu.
- ▶ Erabilera mailari dagokionez berriz, MOEtik kanpo dagoen Zumea plazak, protagonismoa irabaziz joan da azken urteetan, eta gaur egun dinamika sozio-komunitarioaren erreferente nagusia izatera iritsi da.
- ▶ Honek, MOEren dinamikan desoreka nabarmena sortzen du, merkataritza eta ostalaritza jarduera nagusiaren eremua eta dinamika sozio-komunitarioaren erreferentziako espazio nagusia ez daudelako gainjarriak.
- ▶ Epe motz eta ertainera, desoreka hau zuzendu ezean, MOEren egungo kokapenak lekualdatze prozesu progresibo bat jasango du hegoalderantz.

1.4.1.


Goiko Plazako eremu bat estali, gune libre honen erabilera, eta zeharka, Goiko Aldeko ostalaritza eta merkataritza inguruko dinamika bultzatzeko

Azalpena


Ekintza honen bidez, MOE barruan dagoen erreferentziarako gune libre bakarraren erabilera sustatu nahi da, Andoaingo dinamizazio sozial, kultural eta komertzialeko ekimenak garatzeko beharrezko izan daitezkeen baldintza eta elementuekin hornituz.

Ekintza honen oinarrian dauden arrazoiak eta horiei aurre egiteko proposamenak ondorengoak dira:


- Goiko plazak, Andoaingo herri guneko dinamika sozio-komunitarioaren protagonismoa Zumea plazarekin partekatu behar du.
- Goiko plazaren zati handienak, 4.200 metro karratu inguruko azalera duenak, funtzionaltasun maila eskasa du. Inguruko ostalaritza establezimenduek eskaintzen dituzten zerbitzuetatik aparte, espazioak erabilera sustatzeko aukera gutxi eskaintzen ditu, eta ondorioz ez du betetzen dagokion funtzioa.
- Merkataritza eta ostalaritza eremuaren barruan, eguraldi baldintza kaltegarrietan erabilgarri izan daitezkeen espazio publikorik ez dagoenez, Goiko plazako gune libre edo espazio multzoaren 7.000 m² inguruko azalera baliatuz, zati bat estaltzea proposatzen da, nahiko azalarekin, dinamizazio sozial, kultural eta komertzialeko ekimenak garatzeko.
- Gune libre honen erabilerekin batera, inguruko ostalaritza eta merkataritza dinamika bultzatu nahi da.
- Pilotalekuaren ezker paretaren goiko aldean dagoen 4.200 metro karratuko eremuan %20a estaltzea proposatzen da, 900 m² inguru.
- Estalkia pilotalekuaren ezker paretaren ondian kokatuko litzateke, etxebizitzetatik distantzia egoki batera.
- Adibide gisa, pilotalekuko ezker paretaren luzera berdinarekin (27 m. hain zuzen ere) eta 25 metrotako zabalerarekin, 17 eta 22 metro bitarteko distantzia mantenduko litzateke etxebizitza eraikinekin.
- Proposamenaren ebaluazio fasean, egokia litzateke, estalkiaren eremuaren azpian, lurpeko aparkaleku bat eraikitzeak aukera aztertzea. Proposamen hau gauzatuko balitz, Goiko Aldeko eremu publikoaren okupazioan gainazaleko aparkalekuek gaur egun duten eragina murriztuko litzateke eta horren ondorioz, bide sistema eta oinezkoen sistemaren arteko interrelazioa hobetuko litzateke, ingurunearen baldintza urbanistikoak optimizatuz eta merkataritza eta ostalaritza jardueren dinamika sustatuko litzateke.




Goiko plaza
AZALERA 7.000 m²



Zumea plaza
AZALERA 3.000 m²



 **Merkataritza eta ostalaritza eremuko gune libreen sistema**

Bizitza sozio-komunitarioaren erreferentziako gune libreak

Estalkia Goiko plazako eremuan

Merkataritza establezimenduen %75ak gehien eragiten duen eremua

Ostalaritza establezimenduen %75ak gehien eragiten duen eremua



 **Merkataritza eta ostalaritza eremuko gune libreen sistema**

Bizitza sozio-komunitarioaren erreferentziako gune libreak

Estalkia Goiko plazako eremuan

ZERKAUSIA
Tolosako erreferentziako gunea

ATSEGINDEGI
Hernaniko erreferentziako gunea




Estalkiaren neurriak
35x25 m

Estalkiaren azalera
900 m²


Plazaren okupazioa
%20

Etxebizitza eralkinetara distantzia
17 - 22 m


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Obraren estimazioa:
325.000 €

Eragileak

- Andoaingo Udala
- Gune aktiboak proiektuko eragileak
- Eusko Jaurlaritza

Jarduera proposamena 1.5.

MOE barneko lokal hutsen okupazioa sustatzeko ekintzak

Planteamendua

Proposamen honen bidez, MOE barruan kokatuta dauden lokal hutsen okupazioa bultzatu nahi da, eremu horren jarduerari sendotasun eta irismen maila handiago emateko.

Horren atzetik, dauden argudioak ondorengoak dira:

- ▶ MOE barneko lokal hutsen %60a, eremu horren hegoaldeko ertzean kokatzen dira, hauetatik asko eremutik kanpo.
- ▶ Eremu honetatik kanpo daude lokal hauek, azken hamarkadan egindako eraikinetan kokatzen dira eta ondorioz merkataritza eta ostalaritza jarduera hartzeko baldintza egokiak betetzen dituzte, bai azalerari dagokionez, bai altura libreari dagokionez, bai instalakuntza hornidurari dagokionez eta orokorrean derrigorrezko arautegiari egokituta daudelako.
- ▶ Lokal huts hauen portzentaje nabarmen bat merkataritza eta ostalaritza jarduerak gehien eragiten duen eremutik kanpo daudenez, MOE gunearen lekualdatze prozesua indartzen dute.

1.5.1.


Merkataritza eta ostalaritza jarduerak gehien eragiten duen eremuaren barneko lokal hutsen okupazio sustatu

Azalpena

Ekintza honen bitartez, MOE eremuaren lekualdatze prozesuaren arriskuaren aurrean, gaur egun zonalde komertzial izaera duten guneak indartu nahi dira, lekualdatze horrek eragin dezakeen ahulezia saihestuz. Horretarako, ondorengo alderdiak eta ekimenak hartu behar dira kontuan:

- Gune Aktiboak proiektuak lokal hutsen okupazioa bultzatzeko aurreikusten dituen neurriak babestea eta sustatzea proposatzen da.
- Proiektu honek prozesu hau aurrera eramateko aipatzen dituen irizpideekin bat eginez, ekintza hauek zonalde konkretu batzuetan eta modu lokalizatuan garatu beharko lirateke.
- Zehazki, zonalde hauetan: Pio Baroja kalean, Agustin Leitza, kale nagusia 8 eta 57 zenbaki artean eta Zumea kalean, 6 eta 16 zenbaki artean bideratzea proposatzen da.





2. eremua

Merkataritza-dotazioa eta bere eszenatokia
zabalduta eta hobetzea

Jarduera proposamena 2.1.

Merkataritza eta ostalaritza paisaian eragitera zuzendutako ekintzak

Planteamendua

Eszenatoki komertzialean esku hartzea proposatzen da (Andoaingo hiri-sarean) paseorako, gizarte-harremanetarako, eta noski erosketak egin eta zerbitzuak kontsumitzeko gune txukun eta erakargarria izan dadin.

Paisaia komertzialean esku-hartu eta hobekuntzak egiteko, garrantzitsua da ondorengo alderdiak kontuan izatea:

- ▶ Merkataritza eremuan kokatutako eraikinetako fatxaden itxura estetikoki hobetu.
- ▶ Establezimenduen barne eta kanpo irudia hobetzea, modernizatuz erakargarriagoak eginez: argiztapena, eskaparatismoa... gehiago zaindu.
- ▶ Herriko merkataritza eta ostalaritza paisaian eragiten duten alderdi urbanistikoaren egoera eta elementu estetikoak zaindu.
- ▶ Seinaletika soziokomertziala, herriak dituen beste baliabideekin lotzea, proiektio handiago eta integralagoa emanez.

2.1.1.


Merkataritza eta ostalaritza eremuan kokatutako eraikinen fatxaden eta lokal hutsen irudia hobetu eta berriztatzeko Programa bat bultzatzea

Azalpena

Merkataritza eremu nagusiko eszenatokia txukundu eta ahalik eta erakargarriena bihurtzea da helburua, batez ere, eraikinetako fatxaden, baxu komertzialen eta hutsik dauden lokalen itxura hobetzeko neurriak sustatuz. Horretarako, "hiriko estetika hobetzeko Plan" moduko bat programa bat diseinatu eta abian jartzea proposatzen da. Horren bitartez, herritarren topaketa, harremanak, erosketak eta kontsumoa sustatuko duen eszenategi soziokomertzial egokiagoa sortu nahi da.

Ekintza honen baitan, merkataritza eremuetan grafiti artistikoak egiteko programa martxan jartzea proposatzen da (adibidez «Trompe-l'œil» edo «trampantojo» teknika erabiliz), egun itxita dauden lokalen kanpo irudia hobetuz. Lokal itxi horiek identifikatu eta lehentasunak finkatzeko: ardatz komertzial nagusietan aurkitzen direnak kontuan hartu; Gune Aktiboak programan aurreikusitakoak kontuan hartu... Graffitiak egiteko deialdia definitu eta zabaldu beharko litzateke, arte eta margoketaren munduko eragile eta pertsonen artean.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua:



Eragileak

- Andoingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkarteak
- Horma-irudi eta graffitietan espezializatutako artistak
- Esku hartzea aurreikusten den lokal hutsen eta eraikinen jabeak

2.1.2.


Eremu edo kale komertzialak identifikatu eta tratamendu estetiko bateratuarekin bereizteko aukera aztertzea

Azalpena

Establezimenduen gutxieneko “kontzentrazioa” dagoenean, interesgarria litzateke kale, plaza edo zona bakoitzean nabarmendu nahi diren jardueretatik abiatuta (moda, elikadura, ostalaritza...), kale horien izaera komertziala sendotzen laguntzea.

Eszenatoki eta bizipen erakargarria eta diferentea sortuko duten elementu eta euskarri bisualen bidez, zenbait kale edo guneri irudi propioa eta berezia ematea proposatzen da. Horretarako abiapuntua, kale horretan nagusi izan daitezkeen jarduera sozio-komertzialak izan daitezke edo bereizgarriak izan daitezkeen bestelako elementuak, azken helburua, kaleko elementu estetikoaren bitartez, “erakarmen efektua” lortzea dela kontuan izanik.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Eremu horietako merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako arduradunak
- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Dekorazio lanak egingo dituen kanpoko enpresa edo eragilea
- Salkin Elkartea

2.1.3.

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen eremurako berariazko seinaleetika bat diseinatu eta jartzea, herriko beste baliabide eta ekimenekin lotura izango duena

Azalpena


Ondorengo helburuak erdiesteko seinaleetika bat jartzeko aukera aztertzea proposatzen da:

- Herriko ardatz komertzial nagusietan, establezimenduen identifikazioa eta oinezkoen fluxuak erraztea, Goiko eta Beheko aldeen arteko lotura sustatuz.
- Ikuspegi komertzial, soziokultural eta turistikotik, Andoaingo jarduera bereizgarriak eta baliabide endogenoak nabarmendu – batik bat merkataritza eremu nagusietan kokatzen direnak-, bertara iristen lagunduz, eta beren inguruan ibilbideak eta fluxuak sor daitezen sustatuz.

Horretarako hainbat puntu estrategikotan, panel moduko informazio euskarriak diseinatu eta jartzea planteatzen da: oinezko eremuetan, herriko sarreretan, tren geltokiaren inguruan, hiri-bilbean, erreferentziazko ekipamenduen inguruan (Udaletxean, Plazetan, kiroldegian, Bastero Kulturgunean...)

Kontuan hartu beharrekoak: euskarri horien funtzionalitate informatiboa; estetika eta irudiarekin loturiko alderdiak (erakargarriak izatea, homogeenak, irudi korporatiboa lantzea...); informazio mota (eskaintza komertziala, baliabide turistikoa eta aisialdikoak, jarduera soziokulturalak eta ekimen desberdinak, Udal informazioa...).

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkarte
- Seinaleetika egin eta instalatuko duen enpresa

2.1.4.


Merkataritza eta ostalaritza jardueran eragiten duten araudien funtzionamendua aztertu eta hausnarketa egiteko, foro edo lan eremu bat sortzea

Azalpena


Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen jardueran, zuzenean ala zeharka, eragiten duten udal arau eta ordenantzen funtzionamenduaren eta betetze mailaren inguruan hausnarketa eta azterketa prozesu bat zabaltzeko asmoz, foro edo eremu bat sortzea proposatzen da (lan talde gisara). Adibidez, honakoen inguruan:

- Establezimenduak eraberritu edo berriak zabaltzeko behar diren baimen- ematearen inguruko araudia, egon daitezkeen laguntza desberdinak, beti ere, prozesuak errazte aldera.
- Espazio publikoaren okupazioaren inguruko araudia (terrazak, kale erakusketak, astearte eta larunbatetako azoketan espazioen erabilera....).
- Udalerriko merkataritza eta ostalaritza eremuei eragingo dien "garbitasun eta apaintasun ordenantza" bat egiteko aukera eta gai honi buruzko kontzientziazio kanpainak burutzea herritarren artean
- Ibilgailuen zamalanen inguruko araudia (zamalanak erraztuz, udaltzaingoarekin komunikazio hobetuz, ibilgailuak denbora luzez aparkatuta egon daitezen saihestuz, eta herritarren aisialdi eta jarduera komertzialean ahalik eta eragozpen gutxien eragin dezaten saiatuz)
- Merkataritza eta ostalaritza jardueren gaineko tasa eta zergak (establezimenduek abantaila ekonomiko eta fiskalak izateko aukera aztertzea: berriak irekitzerakoan, inbertsioak edo eraberritze lanak egiterakoan, eskualdatze edo traspasoak egiterakoan...)
- Egon daitezkeen lehia desleialaren kontrola ("salmenta ibiltariaren" inguruan gerta daitekeena..)
- Gai honen inguruan, Udalaren informazioa establezimendu guztiei modu eraginkorrean helarazteko sistema.
- Azalera handiko merkataritza guneen inplantazioa kontrolatu eta bere kasuan, mugatzeko neurriak hartzeko aukera.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduetako arduradunak, ez direnak Salkin Elkarteko bazkide

Jarduera proposamena 2.2.

Merkataritza eta ostalaritza dotazioa eta bere eszenatokia zabaldu eta hobetzeko ekintzak

Planteamendua

Garrantzi handikotzat jotzen da merkataritza eta ostalaritza eskaintza handitzea: egun herrian dagoen eskaintza osatu eta indartu dezaketen establezimendu berrien irekiera sustatzea. Izan ere, eskaintza berri horiek eragin traktorea izan dezakete egungo jarduerak aktibatze aldera.

Funtsezkoa kontsideratzen da herrian dauden lokal hutsak okupatu eta balioan jartzea, horietan merkataritza jarduera garatzeko aukerak erraztuz. Horretarako:

- ▶ Merkataritzaren ikuspegitik erdigunean kokatuta dauden lokal eta etxabeak merkatura atera eta komertzio gisa okupa daitezzen sustatzea.
- ▶ Hutsik dauden lokal eta etxabeen gutxienezko mantentze egoera eta itxura ziurtatzea.
- ▶ Establezimenduak ireki / eraberritzen lagunduko duten neurriak sustatzea.

Bestetik, oso garrantzitsutzat jotzen da ere:

- ▶ Merkataritza establezimenduen funtzionamendua eta kanpo eta barne irudia eraberritu eta modernizatzerazuzendutako inbertsoak sustatzeko neurriak hartzea (horrek eragin zuzena baitu eskariak duen pertzepzioan eta egindako balorazioan: fatxadak, errotulazioa, erakuslehoak, argiteria, azalera, banaketa eta antolaketa, altzariak...).
- ▶ Belaunaldi-erreleboa ez izateko arriskua duten negozioetan, okupazioa mantentzeko neurriak hartzea.

2.2.1.


Egungo eskaintzaren osagarri izan daitezkeen merkataritza establezimendu berriak irekitzeko “sustapen-dinamizazio” Programa abian jartzea

Azalpena


Helburua, herrian merkataritza establezimendu berriak irekitzeko interesa izan dezaketen pertsonak “animatu” eta laguntza ematea izango litzateke, batez ere, egungo merkataritza eskaintzaren hutsuneak betetzera datozen establezimenduak direnean eta horren bidez, egungo merkataritza jarduera suspertzeko eragin traktorea izan dezaketenean. Multzto honetan sartuko lirateke: gizonentzako eta gazteentzako arropa/moda dendak; markako arropa-oinetakoak saltzen dituzten dendak; teknologia berriekin zerikusia duten produktuen dendak; altzari eta etxe-tresna dendak.

Suspertze eta dinamizazio programa horretan, jarduera edo laguntza mota desberdinak eskain daitezke: herrian egun dagoen eskaintzari buruzko informazioa ematea (hutsuneak nabarmenduz); merkatu ikerketak egiteko eta lokal egokiak eskuratzeko laguntza-bitartekaritza; herriko dinamika soziokomertziala sustatzeko izan dezakeen eragina kontuan hartuta, diru-laguntzak edo abantaila fiskalak eskaintzea.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Establezimenduak irekitzeko interesa duten ekintzaile berriak
- Hutsik dauden lokaletako jabeak
- Salkin Elkarte

2.2.2.


Hutsik dauden lokalen zentsua eguneratu eta osatzeko sistema bermatzea

Azalpena

Merkataritza gune batzuetan (Goiko Aldea, Zumea eta Kale Nagusian) lokal hutsak identifikatu eta beren ezaugarriak zehazteko hasiko zentsuari jarraipena ematea planteatzen da, horiek balioan jartzeko burutu daitezkeen ekimen edo programak erraztu nahiz merkaturatzeko egon daitezkeen aukerak errazago kudeatu eta baliatzeko.

Horretarako jarraitu beharreko prozedura honakoa litzateke:

- Egun jasotzen diren datuak (lokal hutsen fitxa) berrikusi eta moldaketak/egokitzapenak egitea komeni ote den aztertu (adibidez, egun jasotzen ez den daturen bat jasotzea...)
- Sortutako datu basearen diseinua aztertu: egungo sistema baloratu eta egokitzapenak egin, egokia ikusiz gero.
- Zentsua eguneratzeko modua eta maiztasuna zehaztu.
- Lokal hutsen zentsuaren eremua zabaltzeko aukera: egungo merkataritza eremuez gain, beste batzuetara progresiboki zabaltzeko aukera, bertako lokal hutsak identifikatzeko (herri mailako zentsua osatze aldera)
- Lan horren ardura izango duen erakunde edo programa zehaztu eta horretarako erabiliko diren baliabideak finkatu
- Lokal hutsen zentsuaren kudeaketan inplikaturiko eragileen arteko koordinazioa: Andoingo Udala, Gune Aktiboak programa, Salkin, lokal hutsen jabeak...



2.2.3.

Hutsik dauden lokalen erabilera komertziala laguntzeko programak eta neurriak garatzea


Azalpena

Helburua hutsik dauden lokalen erabilera komertziala sustatzea da. Horretarako lokaletako jabeen eta horien erabileran interesatuta dauden pertsonen artean (merkatariak, ostalariak...) akordioetara iristea planteatzen da. Hitzarmen edo akordioak era desberdinetakoak izan daitezke. Adibidez, merkatariak mantentzearen kostua har dezake bere gain (txukuntasuna, garbitasuna, elektrizitatea...) eta horren truke, jabeak, bere lokala utziko lioke erakusleiho, biltegi ... gisa erabil dezan.

Hutsik dauden lokal komertzialen erabilera sustatzeko orain arte indarrean izan diren ekimen eta programak mantendu eta garatzea proposatzen da, ardatz eta ibilbide komertzial jarraituak osatu eta sendotzeko aukera eskaintzen duten lokalen okupazioa lehenetsiz (Goiko Aldea, Kale Nagusia, Zumea Kalean eta horien inguru hurbilean kokatutakoak)

Edozein kasutan, helburua da jarduera komertziala garatzeko interesa agertzen dutenei lokal hutsen okupazio eta erabilera ahalik eta gehien erraztea.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkartea
- Hutsik dauden lokalen jabeak
- Interesa duten establezimenduetako arduradunak, ez direnak Salkin Elkarteko bazkide

2.2.4.

Kaleetako beheko solairuetan hutsik dauden merkataritza lokalak, hirugarren sektoreko jarduerekin okupatzeko neurriak hartzea

Azalpena

Oso garrantzitsua kontsideratzen da hiriko sare urbanistikoaren dinamizazio soziokomertziala areagotzea. Horretarako, funtsezkoa da kalean hutsik dauden beheko solairuen erabilera sustatzea, horrek herriko bizitza soziala eta ekonomikoa elikatzen duelako.

Hori kontuan izanik era honetako neurriak sustatzea proposatzen da: behe solairuetako lokaletan (baxu komertzialetan) negozio profesionalak jar daitezen sustatuko duen araudia (jarduera profesionalen ordenantza); zerbitzu pertsonal edota profesionalekin lotutako hirugarren sektoreko jarduerak (medikuak, arkitektoak, abokatuak, aholkularitzak, dentistak, ile-apaindegiak ...), lokal komertzialetan zabal daitezen sustatzeko laguntza-programak (zerga-salbuespenak, lanak egiteko erraztasunak...) Helburua, alde batetik, merkataritza eta ostalaritza jarduera, ardatz komertzialen funtzionalitatea eta erakargarritasuna handitzen duten hirugarren sektoreko bestelako zerbitzuekin osatzea da; eta bestetik, era honetako jarduerak kalera mugi daitezen laguntzea, komertzialagoak diren lokaletan kokatuz gero, ikusgarritasunean eta irisgarritasunean irabaziko dutelakoan (aldi berean, kaleko dinamika soziokomertziala areagotuz)


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkarteak
- Hutsik dauden lokalen jabeak
- Zerbitzu sektoreko jarduera bat behe lokal batean jartzeko interesa duten pertsonak


2.2.5.

Establezimenduak berritzeko, laguntza eta aholkularitza pertsonalizatuko programa garatzea

Azalpena

Establezimenduen eraberritzea funtsezkoa da bezeroak erakartzen jarraitzeko. Horretarako, ondorengo ekimenak planteatu daitezke:

- Sektorearen sentsibilizazio eta motibaziorako estrategiak garatzea, establezimenduen berrikuntza eta modernizazioak bezeroak erakarri eta fidelizatzeko duen garrantzia jabetzeko.
- Eusko Jaurlaritzatik merkataritza sektorea eraberritu/berritzatzeko sustatutako laguntza ekonomikoen komunikazioa, aholkularitza eta jarraipena egiten jarraitzea: batez ere, «MEC» deituriko Merkataritza Establezimenduak Modernizatzeko Laguntza Programa.
- PERCO-MIPB honen baitan, Andoingo merkataritza eraberritzeko laguntza zehatzak eskaintzeko aukera aztertzea (aholkularitza, laguntza ekonomikoa, izapide administratiboak arintzea...), bestelako eragile batzuen inplikazioarekin (Andoingo Udala, Foru Aldundia, Gipuzkoako Bazkundera, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa...)
- Eragile desberdinek (Udala, Salkin Elkarte, Buruntzaldeko Merkataritza Dinamizatze Bulegoa) elkarlanaren arituta eskain dezaketen aholkularitza teknikoaz baliatuta, eta banakako komunikazio eta aholkularitzan oinarritutako sustatze-prozesu bat erabiliz, sektorea inplikatzea.



- Andoingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkarte
- Interesatuak egon daitezkeen establezimenduak

2.2.6.

Belaunaldi-erreleboa arriskuan dagoen negozioien okupazioa mantentzera zuzenduta, jarraipen eta bitartekaritza zerbitzua eskaintzea: Berriz Enpresa Programa baliatu

Azalpena

Ekintza honen helburua, belaunaldi-erreleborik ez dutelako ixtera doazen negozioien jarduerari eustea da.


Ikuspuntu operatibo batetik, 55 urtetik gorako arduradunak eta belaunaldi-erreleboa arriskuan duten merkataritza establezimenduak identifikatzea planteatzen da, horietan, jarduera komertziala mantentzea (egungoa ala beste bat) posible egingo duten neurriak hartu ahal izateko. Horrek batetik, lokal huts horiek okupatzeko interesa izan dezaketen ekintzaile edo negozioak identifikatzea eskatuko luke; eta bestetik, hala izan dadin neurri/baliabideak eskaintzea: belaunaldi erreleborik ez duten lokalak okupatzeko laguntza programa; berriztatze / egokitze lanak partzialki diruz laguntzea; lanak egiteko araudiaren aplikazioa malgutzea eta administrazio prozesuak arindu/lehenestea; lokalaren alokairua partzialki finantzatzea.


Ekintza honen baitan, egokia litzateke Eusko Jaurlaritzaren eta Merkataritza Ganberen hitzarmenaren ondorioz, sortutako Berriz Enpresa Programaz baliatzea. Programa honek, bitartekaritza eskaintzen du negozioia uztera doan enpresariaren eta negozio hori hartu nahiko lukeen ekintzailearen artean. Horretarako, laguntza zehatzak eskaintzen dizkie bai negozioia esku-aldatu nahi dutenei nahiz negozioa hartzeko interesa duten ekintzaileei.

Lehentasuna



Epea





3. eremua

Komunikazio eta dinamizazio sozio-komertziala

Jarduera proposamena 3.1.

Sustapen eta fidelizazio ekintzak

Planteamendua

Garrantzi handikotzat jotzen da Andoingo merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako bezeroak fidelizatzeko estrategiak garatzea. Bereziki, garrantzitsua izango da, herriko bezero fidelizatuei eustea eta baita ere, herrian bizi baina herritik kanpo erosteko joera duten bezeroak erakartzea.

Bestalde, Andoainera datozen merkataritza fluxuei eutsi eta hauek handitzea ere lortu nahi da: batetik, kanpoko bezeroak fidelizatzeko estrategiak bultzatuz, eta bestetik, Andoainen eragin eremuko eskari potentzialaren segmentu berriak erakarrituz.

Andoain Txartelaren inpaktua eta erakargarritasuna handitzeko, ezinbestekoa jotzen da sektorearen inplikazioa aktibatzea: batetik, bere onurak eta erabilera-maila areagotuz eta bestetik, “eskaintza” eta sustapen desberdinak osatuko duten urteko sustapen-programa bat garatuz, horrela Txartelak eskaintzen dituen abantailak hobeto planifikatu eta komunikatzeko aukera egongo delako

Txartelaren datu oinarriaren ustiaketak baliagarria gertatu behar du herritarren erosketara ohiturak hobeto ezagutu eta segmentu zehatzak fidelizatzeko komunikazio kanpainak bereziak (beraz, Marketineko Informazio Sistema bat sortu eta horrekin lan egitea planteatzen da),

Egokia jotzen da, Txartelaren bidez, talde zehatzei zuzendutako promozio neurriak sustatzea, talde zehatz hauekin harremana duten erakunde edo establezimenduekin kontaktatuz eta adostuz. Proposamen hauen atzetik, ondorengo arrazoiak daude:


3.1.1.

Andoain Txartela sustatzea: Txartela dutenen kopurua handitu eta Txartelaren funtzionaltasuna areagotzea

Azalpena

Helburua txartela duten herritarren kopurua eta Txartelaz egiten den erabilera handitzea da, dituen abantailak nabarmenduz eta bere funtzionaltasuna areagotuz. Honetarako zeregin hauek planteatzen dira:

- Andoain Txartelarekin erosteko aukera eskaintzen ez duten establezimenduekin banan-banan harremanetan jarri, abantailak azalduz: txartela duten bezeroak (txartel kopurua); txartelarekin ordaintzeko aukera ematen duen establezimendu kopurua; txartelak eskainitako abantailak
- Txartelarekin ordaintzeko aukera eskaintzen duten establezimendu guztiekin banan-banan harremanetan jarri eta txartela sustatzeko irizpide zehatzak eman: bezeroei txartelarekin ordaintzeko aukera sistematikoki eskaini; txartela ez dutenei txartela eskaintzea (abantailak azpimarratuz); bazkide berriak lortzeko helburu finkatzea (adibidez, astean bi txartel berri)
- Interes bereziko bezeroen kolektiboek zuzendutako sustapen kanpainak: txartela ez duten edo erabiltzen ez duten ohiko bezeroak; gazteak; herrian erosketa egiteko ohitura gutxiko bezeroak.
- Erakunde eta enpresa zehatzekin harremanetan jartzea, beren bazkide edo langileentzat Andoain Txartelak dituen abantailak azaltzeko. Interesgarria litzateke sustapen kanpaina hau pertsona multzo handia mugitzen duten erakundeetara iristea: Andoaingo kiroldegia, ikastetxeak (irakasleak, Guraso Elkartek), Andoaingo Udala, kultur eta kirol elkarteak, enpresa zehatzak.
- Txartelaren funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna areagotzeko neurriak lantzea: zordunketa bidez ordaintzeko aukera landu (finantza erakundearekin); egindako ordaintzen inguruan informazio osatuagoa (kopurua establezimenduko, data...); ordaintzak interesik gabe hiru hilabetetan egiteko eskaintzen duen aukera sustatu.



3.1.2.

Marketineko Informazio Sistema (MIS) bat sortzea, Andoain Txartelarekin lotuta eta komunikazio eta sustapen estrategien garapen sistematikoa


Azalpena

Andoain Txartela duten pertsoneri buruz jasotako informazioan oinarrituta, MIS bat sortzea proposatzen da (datu base bat).


MIS honen kudeaketa, funtsezko tresna izan daiteke Andoainen erosketa sustatzeari eta bezeroen fidelizazioari begira landu daitezkeen sustapen eta komunikazio estrategiak garatzerakoan.

Datu oinarria ustiatu eta kudeatzeak, ondorengoan araberako sustapen/abantaila kanpaina desberdinak planifikatu eta aurrera eramateko bidea zabalduko du: identifikatutako eskari-segmentu estrategikoak (erosketa ohituren arabera, bizitza estiloen arabera...); segmentu horiei begira mezu eta promozio zehatzak; erabili beharreko komunikazio kanalak (posta, e-mail, web, sare sozialak, komunikabideak...).

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Salkin Elkartea
- Andoingo Udala
- Caja Rural / Rural Kutxa
- Eusko Jaurlaritza
- Andoingo establezimenduak
- Komunikazio eta kudeaketa lanen garapenaz arduratuko den enpresa

3.1.3.

Urteroko sustapen sozio-komertzialen programa bat osatzea, Andoain Txartelaren MISrekin lotuta


Azalpena

Marketineko Informazio Sistemaren atzetik dagoen datu basean oinarrituta, eta inplikaturako eragileen arteko koordinazioa eta adostasuna abiapuntutzat hartuta, honakoak dira egin beharrekoak: sustapen, beharpen, sari, etab.-en... urteko egutegia finkatu; txartelaren bidez egindako sustapenak sistematikoki komunikatzeko Plana zehaztu: komunikazio momentuak; komunikazio mota: orokorra (komunikabideak, web orria, sare sozialak), pertsonalizatua (posta arrunta, sms, whatsapp-a, Telegram...).


Sustapenak, hainbat irizpideren arabera landu eta zabalduko dira:


- Batetik, txartela duten guztiei zabalduko sustapenak egongo dira, eta bestetik talde zehatzei zuzendutakoak, batik bat herritar/erosle gazteei: gazteentzat bereziki erakargarriak izan daitezkeen jarduera / zerbitzuz osatutako sustapen-sorta landuko da (afariak, bidaiak, masajeak, ikuskizunetarako sarrerak...)
- Interes komertzialeko uneari lotutakoak: erosketak une jakin batzuetan sustatzeko neurriak izango dira, batik bat asteburuetan: ostiraletan eta batik larunbat goizetan.
- Merkataritza adar edo zerbitzu zehatzekin lotutakoak: jantzi-oinetakoak, aisialdi eta kultura produktuak, ostalaritza..... Helburua establezimendu jakin batzuk ezagutu / bistarazi daitezen sustatzea da, horietan eros dadin bultzatuz.

Lehentasuna



Epea





3.1.4.


Erakunde eta establezimenduen arteko akordioetan oinarrituta, bezeroen talde zehatzak erakartzeko sustapen neurriak bultzatzea

Azalpena


Herriko establezimenduetara bezero gehiago erakarri eta bertan kontsumoa areagotzeko, bi estrategia mota jorratzea proposatzen da:

- Batetik, Andoaingo establezimendu eta erakundeen artean (kirol eta kultur elkarteak, enpresak, kiroldegia, zerbitzu publiko edo pribatuak) akordioetara iristea proposatzen da sustapen berezien bidez (deskontuak, opariak, zozketak...) erakunde horietako bazkide edo horiekin lotutako pertsonen artean eskari-segmentu berriak erakartzeko. Bitartekaritza lana Salkinek egingo luke eta Andoain Txartela sustatu daiteke ordaintzeko tresna gisa.
- Bestetik, osagarriak izan daitezkeen eta antzeko eskari-segmentuak izan ditzaketen establezimendu desberdinen artean aliantza eta lankidetzak sustatzea proposatzen da (kirolak eta elikadura; jantzi – oinetako eta osagarriak; elikadura eta ostalaritza...), bezero potentzialak establezimendu desberdinak ezagutu, bertara hurbildu eta eros dezaten sustatzeko. Horretarako, sustapen ekintzak garatzea proposatzen da (beherapenak, opariak...): establezimendu horietako batean erosteagatik, sare barnean dauden beste batzuetan produktu edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko (doan edo beherapenarekin) aukera emango lukeen bale bat jasoko litzateke.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Salkin Elkarteak
- Andoaingo Udala
- Udalerriko erakundeak, elkarteak, enpresak...

Jarduera proposamena 3.2.

Merkataritza hedatu eta komunikatzeko ekintzak

Planteamendua

Garrantzi handikoa da Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu eskaintza hobeto ezagutaraztea, batez ere, herritarren artean baina baita ere inguruko herrietatik datozen herritarren nahiz noizbehinkako bisitarien artean. Horretarako, sustapen eta komunikazio ekintza egokiak burutzea planteatzen da.

Helburua da eskari erreal eta potentzialak, Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen eskaintzaren ezagutza integralago eta osatuagoa izatea, bertako establezimenduekiko interesa piztu eta hurbil daitezen sustatzeko.

Horretarako planteatzen dena da, informazio komertzial fisiko eta materiala (aldizkariak, gidak, biorrikoak...), eskari potentzialaren segmentu berriein konektatzeko aukera emango duen informazio birtualarekin osatzea. Hau da, helburua, merkataritza establezimenduek sarean duten presentzia (web-a, sare sozialak...) sustatzea da, baina erreferentzia fisikoa baztertu gabe, eta establezimenduan bertan ematen den zuzeneko «in situ» harremana sustatuz, establezimenduan «uki» baitaitezke gauzak eta bertan esperimendatzen delako herrietako establezimenduek eskainitako konfiantza, tratu pertsonala eta segurtasuna.

Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako eskaintza ezagutarazteko euskarri komunikatiboak garatzea proposatzen da: internet bidez Andoaingo establezimenduak ezagutzeko modu erraza sortu; herriko komunikabideetan (prentsa, aldizkariak, irratia...) beren presentzia sistematikoa bultzatuz; informazio integrala eskainiko duen euskarri fisikoa bermatuz (merkataritza, ostalaritza eta baliabide turistikoaren gida).

Euskarazko komunikazio komertziala sustapenak, Andoaingo eskariaren sektore zabal baten errealitate soziolinguistikoari erantzuten dio, eta eskainitako zerbitzuaren hurbiltasunaren, konfiantzaren eta kalitatearen adierazle da. Horregatik bada zaindu eta garatu beharreko faktore bereizgarria.

3.2.1.

Kale-dinamizaziorako ekintzak planifikatu eta garatzea


Azalpena

Kaleko giro eta herri bizitza funtsezkoa da herrietako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.


Zentzu honetan, urtean zehar modu jarraituan, baina batik bat merkataritza jarduerarentzat garrantzitsuak diren garaietan (Gabonetan, Amaren eta Aitaren Egunak, San Balendin, San Juanak, Santakruzak, Kaletxikiko Jaiak,... etab) kaleak girotu eta dekoratzea proposatzen da, paseatzeko, gizarte harremanak izateko, komertzioetan erosketak egiteko eta ostalaritzan kontsumitzeko erakargarri gertatuko den eszenatoki sozio-komertziala lortze aldera. Girotze-dekorazio lan hauek, besteak beste, honakoak hartu beharko lituzkete kontuan:

- Establezimenduek beren produktuak kalera ateratzeko aukera izatea, estetika parametro batzuren baitan (deigarria, erakargarria izan dadin)
- “Modan da Euskara”, edo horren baitako Gau Txuria bezalako ekimenei jarraipena ematea (larunbat batean, 17etatik 00:00ak arte establezimenduak irekita egotea, kale animaziorako ekintzen laguntzaz)
- Publiko mota desberdinei zuzendutako izaera ezberdineko ikuskizunak kalera eramateko aukera izatea (kontzertuak, erakusketak, tailerrak, kale antzerkia...), kale bizitza eta giroa dinamizatzeko (larunbat goizak, kasu)
- Euskarri desberdinak erabiliz, kale komertzialetako establezimenduen informazioa emateko seinaleketak lantzea (panelak, etab.) .

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Salkin Elkarteak
- Andoingo Udala
- Andoingo establezimenduak
- “Kale dinamizazioaz” (ikuskizunak) arduratzen diren talde eta enpresak

3.2.2.

Andoaingo gida-plano komertziala etengabe eguneratu, informazioan "sakondu" eta zabaltzea

Azalpena


Ekintza honetarako ezinbestekoa da Andoaingen dauden establezimendu guztien oinarritzko informazioa izango duen datu oinarri edo direktorioa izatea. Informazio euskarri horretatik abiatuta, ondorengo eduki-ardatzen inguruan egituratutako Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen establezimenduen Gida-Planoa landu eta eguneratzea da helburua:

- Andoaingo merkataritza plano integrala, merkataritza, ostalaritza, turismo eta zerbitzu pertsonaletako establezimendu guztien kokapenarekin (posta helbidea).
- Establezimenduen identifikazio datu nagusiak: izena, helbidea, telefonoa, web orria, sare sozialak, helbide elektronikoa ... aukera emango litzaieke ere egiten duten eskaintzaren alderdi bereziren bat azpimarratzeko.
- Andoaingen antolatzen diren gertaera komertzial, turistiko, kultural eta azoka nagusien egutegia.
- Informazio osagarri erabilgarria: eskariarentzat interesgarri izan daitezkeen eragileen helbideak, telefonoak eta web orriak (Udala eta udal ekipamenduak, garraio publikoa, larrialdietako telefonoak...).
- Planoak jasoko duen informazioarekin lotura izango duen informazio grafikoa (argazkiak).

Gida-planoa bi euskarritan zabalduko litzateke:


- Batetik, paperean inprimatutako dokumentua: establezimenduek beraiek nahiz ekipamendu eta zerbitzu publiko desberdinek (Udalaren egoitzan, Urigainen, Basteron, Liburutegian...) banatuko luketen euskarri fisikoa.
- Bestetik, bertsio digitala, eragile desberdinen (Udala, Salkin...) hainbat euskarri elektronikotan (web, sare sozialak) txertatuko litzatekeena.

Lehentasuna



Epea





3.2.3.

Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuek komunikabideetan presentzia izan eta horien bidez hedatu daitezzen estrategia lantzea


Azalpena

Ekintza hau, izaera globalago eta integralagoa duten komunikazio estrategien baitan kokatu behar da.


Tokiko komunikabideekin (Aiurri, Hementxe, Andoaingo Udalaren.. aldizkarietan eta tokiko irratietan, komunikabideen kronika/saio lokaletan...), Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorearekin lotutako informazio interesgarria aldian behin zabaltzeko, lankidetzaz hitzarmenak sinatzea proposatzen da. Hasteko eta behin, horretarako komunikazio programa bat diseinatu beharko litzateke (uneak, gaiak, edukiak, formatuak, dimentsioa-luzera), eta ondoren programa hori garatzeko beharrezkoak izango diren bitartekoak zehaztu. Programa honen ardura nagusia, Salkin Elkarteari dagokio, Udalaren eta inplika litezkeen bestelako erakundeen lankidetzaz.

Ekintza honen baitan, bakarkako publizitatea egin nahi duten establezimenduei tokia eskaini ahal zaie hitzartutako komunikabideetan,


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkarteak
- Interesa duten establezimenduak
- Komunikabideak

3.2.4.


Andoaingo merkataritza eta ostalaritza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gara daitezen laguntzea

Azalpena


Merkataritza eta ostalaritza jardueraren garapenean IKTek geroz eta garrantzi handiagoa dute eta herritarrek ere geroz eta gehiago erabiltzen dituzte (batez ere belaunaldi gazteak). Hori kontuan hartuta, oso garrantzitsutzat jotzen da Andoaingo establezimenduen presentzia IKTetan sustatu eta teknologia horiek erabiliko dituzten merkataritza zerbitzuak garatea: web orriak, erosketak elektronikoa egiteko aukera, presentzia sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram...), bat bateko mezularitza (Whatsapp, Telegram). Ekintza hau, bi mailatan planteatu daiteke:

- Batetik, gai honen inguruan sektorea sentsibilizatzeko ekimenak garatea: hitzaldiak, esperientzia zehatzen erakusketa, albisteak sortu eta zabaltzea (sare sozialen bidez, Salkinek izan dezakeen web orriaren bidez, tokiko komunikabideetan...); prestakuntza ikastaroak; tutorial informatibo edo formatiboak (taldean ikusi eta komentatu daitezkeenak...)
- Bestetik, Andoaingo establezimenduetan IKTen ezarpena sustatzea. Horretarako egokia litzateke establezimenduei zuzendutako aholkularitza zerbitzua eskaintzea, Udalak eta batez ere Salkinek sustatuta (era honetako zerbitzuak eskaintzen dituzten hornitzaileen aurrean bitartekari gisa azalduz).


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza (bere programen bitartez)
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

3.2.5.


Merkataritza eta ostalaritza harremanetan euskararen erabilera sustatzea

Azalpena


Andoaingo eta bere inguruko errealitate soziolinguistikoa ezagututa eta eskariaren nahiz eskaintzaren segmentu zabal batentzat euskarak komunikazio tresna gisa duen garrantzia kontuan hartuta, euskarazko komunikazioa sustatzea helburu duten hainbat neurri proposatzen dira bezeroak erakarri eta fidelizatzeko:

- Inplikaturako eragileek (Udala, Salkin), merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan hizkuntza normalizazioa sustatzeko indarrean dituzten programak edo ekintzak baloratzea (Modan da Euskara ekimena, kasu)
- Andoaingo establezimenduen hizkuntza tipologia bat sortu, hizkuntza aldagaiak kontuan hartuta (euskararen ezagutza-maila, erabilera-maila, komertzioan euskara sustatzeko jarrera eta interesa); eta tipologia horren arabera, establezimenduetan euskararen erabilera bultzatzeko neurri zehatzak sustatu, berrorientatu edota birformulatu: egoera soziolinguistikoaren arabera sustapen neurri berezituak proposatu.
- Establezimenduen interes komertziala eta euskararen sustapena modu egokian uztartzen dituzten ekimen eta programak garatzen eta egokitzen jarraitzea (Adibidez, Modan da Euskara, Pintxo Lehiaketa...), eragile desberdinen inplikazioa ahalbidetuz (Udaleko sail desberdinak, merkatariak, ostalariak, moda arloko ekintzaileak...)
- Establezimenduetan euskarak bizi duen egoerari buruzko jarraipen eta ebaluazio sistema bat abian jartzea, arlo honetan burutzen diren jarduerak eta ekimenak baloratu eta egokitzapenak nahiz ekintza berriak proposatu.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkarteak
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak


3.2.6.

Andoaingo herri bizitzarekin eta herriko establezimenduen ezaugarri bereizgarriekin lotuta, herrian erosi eta kontsumitzeko sustapen kanpainak


Azalpena

Herri bizitzari eutsi eta herri dinamika indartzeko, herrian bertan erosi eta kontsumitzeak duen garrantziaz Andoaingo herritarrek kontzientziatzeko kanpaina burutzea proposatzen da. Kanpaina hau maiztasun batekin errepikatu beharko litzateke. Horren bidez, herritarren bizi kalitatean herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sare osatu eta orekatua izateak duen garrantzia transmititzea lortu behar da: merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektore ahula duen herriak, gabezia nabarmena izango du herri bizitza dinamiko eta erakargarria garatzeko (Bertako biztanleek ez dute herri bizitza, topaketa eta harremanak ahalbidetzen duen giro egokirik aurkituko) Kanpaina horrekin lotuta, interesgarria litzateke bertako txikizkako establezimenduek eskaintzen dituzten produktuen kalitate-prestazio-prezio harremanaren inguruan, ekintza komunikatibo antolatu eta sistematiko bat garatzea. Izan ere, harreman hori da herriko establezimenduen eskaintza eta azalera handiek eta kate komertzialek egiten duten eskaintza gehien bereizten duen aldeetako bat; azken hauek, «prezio merkeetan eta eskaintza berezietan» fokalizatzen dituztelako beren kanpainak. Gizarte-pedagogiarako kanpaina gisa planteatzen da, prezio altua eta prezio garestia bereizteko tresna gisa. Prezio aldagaiaren garrantzia erlatibizatu eta dagokion garrantzia ematea proposatzen da, erosketa ekintza pozgarria izan dadin erabakigarriak diren beste faktore batzuekin alderatuz (arretarako eskaintako denbora, produktuari buruzko azalpenak eta gertuko aholku pertsonalizatua, konfiantza, sinesgarritasuna...).

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Salkin Elkarteak

Jarduera proposamena 3.3.

Bezeroei erosketa errazteko ekintzak

Planteamendua

Bezeroei eskainitako zerbitzu osagarrien inguruan atzemandako hutsune edo gabeziak erantzutera zuzendutako ekintzak garatzea proposatzen da. Ekintza hauek, erosketa ekintzaz harago doaz, baina Andoaingo merkataritzaren erakargarritasun komertzialean eragiten dute.

Erosketak egiteko garaian lagungarriak izan daitezkeen zerbitzu logistikoak garatzea planteatzen da, horien bidez, erosketak erosoago egin eta merkataritza eremuan oinezkoen desplazamenduak lasaiagoak izatea sustatu nahi da. Horretarako, ondoko zerbitzuak eskaintzea egokia eta bideragarria den aztertzea proposatzen da: erosketen ethez etxeko banaketa, talde ahulenei zuzendutako zerbitzu zehatzak.

Ezinbestekotzat jotzen da aste barruko dinamika sozio-komertziala mantendu eta sustatzea, udalerrian bertan egindako merkataritza-gastuari eutsi eta bestelako gune komertzialetara ihes egindako fluxuak saihesteko. Horretarako, Andoaingo establezimenduen irekitze eta ixte ordutegia erosketa-ohitura berrietara egokitzea planteatzen da, erakunde eta eragile publiko eta pribatuek garatutako jarduera soziokulturalaren eta kirol jardueraren programazioarekin artikulatuz.


3.3.1.

Bezeroei zuzendutako zerbitzu osagarriak antolatzeko aukera aztertzea

Azalpena

Bezeroei zuzendutako zerbitzu osagarri zehatz batzuk antolatzeko aukera aztertzea proposatzen da. Andoingo establezimenduetan erosketak egiteko garaian sumatutako hutsuneak betetzera zuzendutako zerbitzuak lirateke, egindako erosketarekiko asebetetzea handitzea ekarriko luketenak. Aztertu beharreko zerbitzu horiek ondokoak lirateke:

- Etxez-etxeko banaketa zerbitzua antolatzea: produktuak etxeetara eramatea. Oso interesgarria litzateke batik bat: ibilgailua erabiltzeko zailtasunak dituzten erosleentzat, mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat, erosketa handia egiten (eta pisu handia hartzen) dutenentzat, erosketak egiteko ibilgailu erabili nahi ez duten erosleentzat.
- Haurren zaintza eta animazio zerbitzua doan: komertzialki bereziki interesgarriak diren une jakinetan interesgarria litzateke "haurtzaindegi" gisa funtzionatuko lukeen zerbitzua antolatzea –haurrentzako animazio jarduerak izango lituzkeena-, horrek beren gurasoak erosketak, enkarguak nahiz bestelako zerbitzuen kontsumoa egiteko libre utziko bailituzke.
- Andoainen ahulezia egoeran dauden pertsona eta taldeei zuzendutako zerbitzu komertzial bereziak antolatzea. Helburua, honako taldeen behar bereziei erantzun egokia ematea litzateke: adin altuko pertsonak, menpekotasunen bat duten pertsonak, familia-karga izan eta bakarrik dauden emakumezkoak... Salkinen eta Andoingo Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren artean komunikazio kanala irekitzea edota kolektibo hauek atenditzen dituzten erakundeekin harremanetan jartzea planteatzen da, kolaborazio aukera posibleak aztertzeko: etxez etxeko zerbitzua eskaintzea stock-ean geratu diren produktuak prezio merkeagoan eskainiz...



- Andoingo Udala
- Salkin Elkarte
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak

3.3.2.

Merkataritza ordutegia erosketa ohitura berrietara egokitu eta astegun batean «erosketa eguna» ezartzea

Azalpena

Erosketa ohituratan eman diren aldaketak eta une komertzial desberdinak kontuan hartuz, merkataritza osoaren eta adar bakoitzaren ordutegiak aztertu eta adostasunetara iritea da planteatzen dena (bateratze eta osagarritasun alderdiak landuz): aztertu zer den eguerdian erosten dena, eta zer arratsaldeko azken orduan; zer den astean zehar erositakoa eta zer asteburuan (larunbat goizak kontuan hartuta); udazken-negu sasoiaren eta udaberri-udakoaren artean dagoen aldea....etab.

Shopping day edo «erosketa egun» bat ezartzeko aukera planteatzen da (astero, hamabostero, hilerro). Egun horretan, Andoingo komertzio eta zerbitzu guztiek irekiko lukete, ordutegi zabalagoarekin (eguerdian ez itxiz edo itxeko ordua atzeratuz, 14:00ak arte), eta arratsaldean itxeko ordua atzeratuz (21:00ak arte), eskaintza eta beherapen bereziak ezarri...

Hori osatzeko, garrantzitsua litzateke merkataritza eta ostalaritza sektoreek modu koordinatuan dinamizazio ekintzak garatzea, eta kultura eta kirol esparruko eragileekin elkarlanean arituz, astegun horietan dinamizazio ekintzak antolatzea:

- Batetik, merkataritza eta ostalaritza establezimenduetara sartzea sustatuko duten promozio neurriak garatuz, bai alor komertzialean (beherapenak, zozketak ...) bai ostalaritzakoan (kontsumizio merkeagoak, bereziagoak...)
- Bestetik, neurri hauek, arlo soziokulturalean, aisialdian eta kirolean garatzen diren bestelako jarduerak osagarriekin uztartuz (egun jada existitzen direnak aztertu eta era koordinatu eta integralean landu) eta gizartera zabalduz.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Interesa duten establezimenduak
- Salkin Elkartea
- Herriko elkarte soziokulturalak, kirol elkarteak...
- Andoingo Udala
- Eusko Jaurlaritza

Jarduera proposamena 3.4.

Asteburuetan merkataritza sustatu eta azokako jarduerak aztertzeko ekintzak

Planteamendua

Erosketa ohiturei eta zerbitzuen kontsumoari dagokienez, eskariaren segmentu zabal batentzat asteburua une giltzarria da, denbora librearekin eta momentu horretan egiten diren beste ekintzekin uztartzen direlako (paseoa, harreman sozialak...).

Merkataritza eta ostalaritza eskaintza, aisialdiko, kultur eskaintza, eskaintza turistikoa eta kirol eskaintza integratuz, larunbat goizak dinamizatzeko programa osatzea planteatzen da, horrek erakargarriago egingo baitu Andoainen bertan geratu edo bertara hurbiltzeak, batez ere bertako herritarrentzat, baina baita ere inguru hurbileko herritarrentzat nahiz noizbehinkako bisitarientzat (programa horretan, larunbateko azokaz gain, noizbehinka azoka bereziak egitea proposa daiteke, outlet edo stock gisakoak)

Larunbat goiza, Andoaingo dinamika sozio-komertzial eta soziokulturalaren egun garrantzitsua bilakatzea da helburua.

3.4.1.


Asteburuetao jarduera sozio-komertziala dinamizatzeko plana diseinatzea

Azalpena

Ostiraletako eta batik bat larunbat goizetako jarduera sozio-komertziala dinamizatzeko ekintza programa bat antolatzea da helburua (ostiralak eta larunbat goizak, egun honetako azokak duen eragina aprobetxatuz). Plan hau diseinatzeko prozesua hauxe litzateke:

- Sektorea, Salkinen bitartez, inplikaturako Udal sailekin (sustapen ekonomikoa, kultura, kirola, euskara, turismoa) eta herriko gizarte eragileekin (elkarte soziokulturalak, kirol elkarteak...) koordinatzea.
- Urte osorako ekintza programa/egutegi artikulatua zehaztea. Honek ostiral eta larunbatetako dinamizazioa ere kontuan izango luke, eta jarduera desberdinak konbinatuko lituzke: jarduera komertzialak, ostalaritzakoak, zerbitzuetakoak, aisialdia eta kultur arlokoak, kirol arlokoak, azokak...
- Garrantzia berezia hartuko du ondorengo talde hauek erakarri eta herrian geratzeko jarduera programa artikulatzea: gazteak, bikote eta familia gazteak. Horretarako, jarduera eta zerbitzu sorta bat diseinatu beharko da: kale animazioa, musika, kultur eta kirol ekitaldiak, haurrentzako ekintzak.
- Merkataritza ordutegiak eragindako dinamikara egokitzea.
- Merkataritza jarduera sustatzea, asteburuetao erosteagatik eskaintza/promozio bereziak garatuz.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Interesa duten establezimenduak
- Salkin Elkarteak
- Herriko elkarte soziokulturalak, kirol elkarteak...
- Andoaingo Udala
- Eusko Jaurlaritza

3.4.2.

Azoka-jarduera eta astearte eta larunbateko azoka txikien azterketa eta planifikazioa


Azalpena

Astearte eta larunbatetako azoka edo merkadilloaren funtzionamendua aztertzeko beharra planteatzen da. Horretarako, interesgarria izan daiteke, azoka horien antolaketa eta garapenean, zuzenean nahiz zeharka, zerikusia duten eragile desberdinek bilduko dituen lantaldea sortzea.

Hasiera batean, ondorengo aldaketa edo egokitzapenak azter daitezke:


- Azoka bi egunetan egitea egokia den ala ez baloratu, eta egitekotan biak berezitu eta nabarmentzeko ekintzak aztertu, larunbatekoak, asteartekoak harrapatu ezin dituen bezeroak erakar ditzakeela kontuan izanik (lanean ari den jendea, gazteak, ikasleak...)
- Larunbatetako azokan, bertako nekazaritzako elikagaien eskaintza indartu eta zabaltzea (baserrikoak, bertan ekoiztuak...)
- Larunbatetan, "azoka bereziak" antolatzeko aukera, janarien inguruan (baratzeko produktuak, ardoak, sagardoak, garagardoak, txakolina, arrantzako produktuak...), nahiz bestelako produktuen inguruan (turismo berdearekin zerikusia duten produktuak –kirol ekipamendua eta osagarriak...-; outlet feria...), beti ere, herriko dinamizazio soziokomertziala sustatu, herri barruko fluxuak eta herritarren topaketa bultzatu eta herriko merkataritza eta ostalaritza eskaintza hobeto ezagutarazteko.
- Larunbateko azoka beste toki batera eramateko aukera aztertu: Goiko Aldeko plaza batera. Hasiera batean eta testatzeko, hilean behin Goiko Aldean antola daiteke (hileko lehenengo larunbatean, adibidez).

Lehentasuna



Epea





3.4.3.

Merktaritzea eta zerbitzu sektorearekin eta dinamika soziokomunitarioarekin lotuta, ostalaritza sustatzeko ekintzen programa

Azalpena


Garrantzitsutzat jotzen da ostalaritza sektoreko jarduera sustatzea, herriko merktaritzea eta zerbitzuekin eta herri elkarteek eragindako dinamika soziokomunitarioarekin lotuta, elkarren arteko osagarritasuna bultzatuz. Horretarako, ostalaritza kontsumoa sustatzera bideratutako ekimen desberdinak planifikatzea planteatzen da, asteburu nahia aste barruan; besteak beste:

- Pintxoka lehiaketari jarraipena ematea, egoki ikusten diren berrikuntza eta hobekuntzak eginez (establezimendu gehiagok parte hartzea, ekintza osagarriak antolatzea...)
- "Pintxoan ibilbideak" antolatzea, ostalaritza establezimendu desberdinen artean: 4-5 establezimenduk osatutako pack-ak osatu, pintxo-mota edota edari mota desberdinen arabera antolatuak, precio bereziak eskainiz.
- Urtean zehar dastaketa mota ezberdinak antolatzea: ardoak, txakolinak, sagardoak...
- Menu bereziaren eguna: produktu motarengatik edota prezio merkeagoarengatik, beti ere, herriko establezimenduetan egindako kontsumo edo erosketarekin lotuta (ordainagiria edo bonoa erakutsiz)
- Kontsumizio merkeagoak eskaini (gosariak, pintxoak, kafea...), herriko beste establezimenduetan erosi izanaren truke (egindako erosketaren ordainagiria edo bonoa erakutsiz)


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduak

4. eremua

Sektoreko profesionalen prestakuntza eta birziklapena

Jarduera proposamena 4.1.

Prestakuntza sustatu, hobetu eta bere jarraipena egitera zuzendutako ekintzak

Planteamendua

Andoingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoretako profesionalen formazioa sustatu, hobetu eta bere jarraipena egiteko, honakoak hartu behar dira kontuan:

- ▶ Formazioarekiko sentsibilizazioa eta interesa sustatzea; hauxe baita merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean etengabe gertatzen diren aldaketetara negozioa egokitzeko eta profesionalizatzeko eta lehiakor izateko ezinbesteko faktorea (sektorearen profesionalizazioa garrantzi handiko helburua da)
- ▶ Andoingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorearen formazio beharrekin zerikusia duten gai eta edukien identifikazioa (herriko profesionalen ezaugarriekin lotutako prestakuntza)
- ▶ Sektorean lan egiten duten langileen ezaugarri eta denboraren disponibilitatera hobeto egokituko diren prestakuntza formatu berriak diseinatu eta frogatzea (ikuspegi teoriko eta praktikotik, nahiz ikuspegi didaktiko eta pedagogikotik): sortzen diren ikasle taldeen mailaketa homogeneoagoak, pertsonalizatuagoak, irakasle/trebatzaileen gaitasun tekniko eta pedagogikoa gehiago zaintzea, denboran kontzentratuagoa, intentsitate eta orientazio praktikoagoa.
- ▶ Burutzen diren prestakuntza jarduerak modu jarraitu eta sistematikoan ebaluatzea eta atzemandako hobekuntza beharrak inplementatzeko sistemak bilatzea.

4.1.1.


Prestakuntzaren aldeko sentsibilizazio-motibazio programa garatzea

Azalpena


Helburua da negozioa mantendu, egokitu eta berritzeko, formazioak duen garrantziaz merkataritza eta ostalaritza sektorea sentsibilizatu eta kontzientzia hartzera zuzendutako jardueraren garatzea da. Horretarako, ondorengo alderdiak aztertu beharko lirateke:

- Sektorean esperientzia duten pertsonen eskutik, interesgarriak eta funtzionalak diren gaien inguruan sentsibilizazio ekintzak programatzea.
- Prestakuntza eskaintzeko egokienak izan daitezkeen formatuak zehaztea: hitzaldiak, mahai-inguruak, talde dinamikak...
- Antolatutako formazio-sentsibilizazio ekintzen komunikazio pertsonalizatua eskaintzea, batik bat prestakuntza jardueretan gutxien inplikatzeko diren establezimenduei: komunikazio pertsonal zuzena, posta bidezko komunikazioa, sms, e-posta, bat bateko mezularitza (whatsapp, Telegram...).


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkarteak
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

4.1.2.

Prestakuntza-formatu berriak diseinatzea, ebaluazio eta etengabeko hobekuntza sistemak aplikatuz


Azalpena

Helburua da, mailaketa sistema homogeenagoak, intentsiboak, zehatzak, eta ikuspegi erabat praktikoa izango duten jardura formatiboak diseinatu eta garatzea, Andoingo formazio beharrekin lotuak. Honen arrazoia, prestakuntzaren eraginkortasuna areagotzea, formaziorako denbora laburtzea da, merkataritza eta ostalaritza sektoreko langileen ezaugarrietara gehiago egokituz.


Prestakuntza antolatu / eskaintzen duten eragileen eta prestakuntza jasotzen duten eragileen artean (merkataritza, ostalaritza...), elkargune bat sortzea proposatzen da, ondorengoak adostu eta zehazteko:


- Sortzen diren taldeen maila homogeenagoa: horrek ahalbidetzen du partaide guztien aurrerapen orekatua eta formazio ekintzen eraginkortasuna. Horretarako, kopuruz txikiagoak diren taldeak osatzeko aukera eskaini behar da.
- Irakasle/trebatzaileen gaitasun teoriko eta pedagogikoa ziurtatzea: trebatzaileek ikasleen ezaugarri eta premiei erantzuteko gaitasuna izan behar dute. Hau funtsezko faktorea da ikasleen asebetetzea lortzeko eta formakuntzarako interesa mantentzeko
- Formazio formatu laburrak: iraupena (1, 2 edo 3 egun), ordutegiak (goizez edota arratsaldean), metodologia (tailerra, mahai-ingurua, world café, bana-banako prestakuntza, establezimenduetan bertan emateko prestakuntza...)
- Edukiak: iraupen laburreko formatu batean landu daitezkeenak, merkataritza eta ostalaritzaren egoerarekin zerikusia dutenak eta establezimenduek eskatzen dituztenak
- Jasotako formazioa establezimenduetan modu praktikoan aplikatzeko aukera izatea.
- Eskaintako formazioaren alderdi desberdinen ebaluazioa egin eta berrikuntza eta etengabeko hobekuntzarako estrategiak proposatu: prestakuntza jardueren komunikazioa, kokapena eta azpiegitura, landutako gaiak/edukia, metodologia, irakasleak, erabilitako material/euskarriak, operatibotasuna/praktikotasuna, datak, ordutegia eta iraupena, kostua (hala badagokio), eta hobekuntza proposamenak.

Lehentasuna



Epea





Jarduera proposamena 4.2.

Formazio-eskaintza berriak sortzearekin loturiko ekintzak

Planteamendua

Andoingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreei zuzendutako formazio eskaintza berri bat eskaintzeko, honakoak hartu behar ditu kontuan:

a) Ikuspuntu zehatz batetik:

- ▶ Aipatutako jardueretan lan egiten duten profesionalen prestakuntza behar espezifikoak antzematea. Horretarako, egokia ikusten da profesionalen formazio beharrak jaso, aztertu eta horiei modu egokian erantzuteko sistema proposatuko duen ikerketa egitea. Horretan oinarrituta, formazio beharrak modu iraunkorrean antzemateko sistema sortu behar da.

b) Ikuspuntu orokor batetik:

- ▶ Bezeroekiko izan beharreko jarreraren inguruko formazioa sustatu behar da: arreta profesional eta adeitsuagoa eskaintzen eta merkatuko beste eskaintzengandik bereiziko dituen lotura emozionalak sortzen lagunduz.
- ▶ Merkataritza ekintzailatza eta belaunaldi-erreleboa sustatu behar da, merkataritza negozioa kudeatzeko kualifikazio profesionalera bideratutako formazio programa zehatzak eskainiz.
- ▶ Merkatarien Elkartarekin eta Gipuzkoako Merkataritza Ganbarekin lankidetzan antolatutako ikastaroekin aurrera egin behar da, beren jarraipena eginez eta egokituz. Ostalaritza sektorean formazioa sustatzeko, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartarekin akordioetara iristea planteatzen da

4.2.1.


Prestakuntza beharren azterketa egitea eta horien etengabeko jarraipena egiteko behatokia sortzea

Azalpena


Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetan lan egiten duten pertsonen formazio behar zehatzak aztertu eta horiei modu egokian erantzuteko aukeren inguruko azterketa laburra egitea proposatzen da. Horretarako, lehen fase batean, aipatutako sektoreetan lanean ari diren pertsonak elkarrizketatuz eta erdi-egituratutako galdesortak betez, informazio bilketa lan bat egitea planteatzen da. Bildutako informazio hori ustiatu eta aztertu ondoren, burutu/egokitu beharreko formazio ekintzak modu eraginkor batean planifikatzeko aukera egongo da.

Formazio beharren eta horiei erantzuteko neurrien kudeaketa Salkini dagokio. Nolabait, formazio beharren “behatoki” gisa funtziona dezake.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkartea
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

4.2.2.


Etengabeko prestakuntza programa diseinatzea

Azalpena


Sektorearen beharrei zuzendutako etengabeko formazio programa bat diseinatzea da helburua. Programa honek, Andoingo establezimenduen formazio eskaerak hartu beharko lituzke kontuan. Hasiera batean, formazioa, ondorengo gaien inguruan eskaini daiteke:

- Bezeria erakarri eta fidelizatzeko branding emozionala (lotura emozionalak sortuz, eta «erosteko presioa» eragitea saihestuz bezeroekin adeitsu eta atsegina izateko formazioa...)
- Bezeroen arreta: salmentara eta bezeroen kudeaketara aplikatutako psikologia; aholkularitza pertsonalizatua; salmenta teknikak.
- Salmenta gunareen antolaketa: instalazioak, ekipamendua, merchandisinga.
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa.
- IKTen aplikazioa sektorean: web-ak, salmenta elektronikoa, merkataritzaren sustapena sare sozialen bidez.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkarte
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

5. eremua

Merkataritza asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea

Jarduera proposamena 5.1.

Elkartearen funtzionamendua eta egitura sendotzera zuzendutako ekintzak

Planteamendua

Andoingo merkataritza eta ostalaritza elkartearen funtzionamendua eta egitura sendotzeko, ondorengo alderdiak lantzea proposatzen da:

- ▶ Establezimenduen artean, asoziazionismoaren sustapen erakargarria egin eta Salkinerako bazkide berriak lortzea.
- ▶ Salkinen kudeaketa arloa sendotzea, proiektuak landu, kudeatu eta horien jarraipena egiteko gaitasuna bermatuko diona, horrek eskatzen duen denbora eta gaitasun profesionalarekin.
- ▶ Salkinen autofinantziaziorako gaitasuna handitzea: proiektu desberdinen garapena ziurtatzeko garaian autonomia gehiago izan, eta aldi berean, laguntza publikoekiko menpekotasuna murrizteko.
- ▶ Ostalaritza sektorearen integrazioa areagotu eta sektore komertzialarekin duen artikulazioa hobetzea, inpaktu sozio-ekonomiko handiagoa izango duten ekintza integralak bideratu ahal izateko.

5.1.1.


Establezimenduen artean Salkin sustatzea: bazkide berriak erakartzea

Azalpena


Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduen artean, Salkineko bazkide izateko sustapena egitea da helburua, horren bidez eragile soziokomertzial gisa duen sendotasun eta erreferentzialtasuna handituz. Hortaz, Salkinen ezagutza-maila edo erreferentzialtasuna areagotzeko, eta batez ere, bazkide izateak eskaintzen dituen abantaila eta onurak ikustarazteko ekintza desberdinak burutzeko aukera planteatzen da:

- Salkineko bazkide ez diren establezimenduen artean komunikazioa eta sustapena jorratzeko, lan talde bat osatzea (bazkide direnen artean Elkartearikiko atxikimendua indartzeko ekimenak ahaztu gabe)
- Salkinen antolaketa, eginkizun eta funtzionamendua komunikatu eta dibulgatzeko asmoz dokumentu bat prestatu eta zabaltzea (eskaintzen dituen zerbitzuak eta bazkide izatearen onurak nabarmenduz)
- Bazkide ez diren establezimenduei begira, komunikazio eta sustapen kanpaina pertsonalizatu bat abian jarri (aurrez aurreko harreman eta bisita pertsonalak), Salkineko bazkide egitea helburu.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkartea
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

5.1.2.

Salkin Elkartearen antolaketa eta kudeaketa egitura indartzea


Azalpena

Helburua, elkartearen antolaketa eta kudeaketa egitura asentatu eta sendotzea da. Horri esker posible izango baita dagozkion funtzioak modu jarraitu eta eraginkorrean garatzea (proiektuak diseinatu, inplementatu eta beren jarraipena egitea; bazkideekiko komunikazio sistematikoa; bazkideei orientazio eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzea; bestelako erakunde publiko eta pribatuen aurrean bitartekari izatea; dinamizazio sozio-komertziala, kudeaketa administratiboa....). Hau da, Elkartearen funtzionamendu egokia bermatuko duen gestio-eredua bermatzea da helburua.


Horrez gain, ekimen eta mobilizatorako gaitasuna duten eragileez osatutako aholku batzorde bat abian jartzea proposatzen da, ondorengoak lortzeko asmoz:

- Elkarrekin dinamikoagoa sustatzeko, proiektu desberdinak planteatu eta martxan jartzeko gaitasuna izango duten eragileak bertara bilduz.
- Xedea udalerriko merkataritzaren promozio integrala dela kontuan hartuta, Salkin Elkarteari ekimen desberdinak proposatuko dizkion «gune eragile» baten laguntza eskaintzea.
- Aholku batzordearen funtzioa, elkarteko zuzendaritza informatzea eta honi aholkularitza eskaintzea litzateke.

Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkartea
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

5.1.3.


Salkin Elkartearen autofinantziazio-maila handitzea

Azalpena


Elkarteak bere funtzionamendu-dinamikan izan duen bilakaera, egun garatzen dituen funtzio eta proiektuen garrantzia, eta etorkizunean gara ditzakeenak aintzat hartuta, autofinantzatzeko gaitasuna handitzea da proposatzen dena. Beraz, betetzen dituen funtzioak autonomia maila handiagorekin burutzeko baliabide gehiago lortzea proposatzen da.

Horretarako, Salkinen autofinantziazioa gaitasuna areagotzeko egon daitezkeen iturri desberdinak aztertu behar dira: bazkide kopurua igotzea, bazkide kuota igotzea, babesleak (sponsorrak) bilatzea, publizitate hitzarmenak adostea...


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkarte
- Eusko Jaurlaritza
- Interesa duten establezimendu eta erakundeak

5.1.4.

Ostalaritza sektorearen presentzia eta parte hartzea sendotu eta sustatzea


Azalpena

Oso garrantzitsua da Salkineko bazkide kopurua handitzea. Zentzu honetan, garrantzi berezia du ostalaritza establezimenduak elkartera erakartzeak, egun duten pisu murrizta dela kontuan izanik.


Horrekin batera, ostalaritza sektorearekin lotutako gaiak espezifikoki lantzeko, Salkinen barne dinamika egokia sor dadin sustatzea da helburua. Honek, sektorea bera mobilizatu eta integratzen lagun dezakeelako batetik, eta bestetik, merkataritza eta ostalaritzaren arteko barne artikulazioa hobetzen lagun dezakeelako. Hau lortu ahal izango litzateke:

- Salkinen Zuzendaritzan ostalaritza sektorea ordezkaturata egongo dela bermatuz. Horretarako, ostalaritzaren ordezkariaren figura ezarri. Honek hobetu egingo luke Salkin eta bazkide diren ostalarien arteko harremana eta komunikazioa, bi eragileen arteko distantzia murriztuz, eta harreman pertsonal eta zuzenagoa ahalbidetuz.
- Salkinen ostalaritza batzordea osatuz: batetik, Andoaingo eremu desberdinetako ostalarien ordezkariekin, eta bestetik, ekimen kolektiboak garatzeko orduan jarrera parte hartzailea eta ikuspegi orokorra agertzen duten eragileekin.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkartea
- Eusko Jaurlaritza
- Ostalaritza establezimenduak

Jarduera proposamena 5.2.

Bazkideei eskaini beharreko zerbitzuekin loturiko ekintzak

Planteamendua

Elkartearen eta bere bazkideen arteko harremanak eta komunikazio fluxuak hobetzea proposatzen da: elkarrenganako komunikazioa hobetu eta elkartearen dinamikan parte hartzea handituko luke horrek, eszenatoki komertzial integrala bisualizatzea posible egingo luketen jarduera bateratu eta adostuak aurrera eramateko aukerak areagotuz.

Ildo honetan, ezinbestekotzat jotzen da Salkinen funtzionalitatea areagotzea, eta merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuei ahalik eta zerbitzu gehien eta onenak eskaintzea, hori baita erreferente gisa duen papera sendotu eta bazkideen parte hartzeko interesa areagotzeko tresna.

5.2.1.

«Erosketen zentral» baten moduko zerbitzua sortzeko aukera aztertzea

Azalpena


Salkinen sustatuta, “erosketen zentral” modura funtziona dezakeen zerbitzu bat antolatzeko aukera aztertzea planteatzen da, interesa izan dezaketen establezimenduentzat.

Komunak diren produktu/zerbitzuak merkeago erostea da helburua: komunak diren produktu eta zerbitzuak erosterakoan kostuak murriztu nahiko lituzketen establezimenduak bilduko dituen plataforma bat sortuz (aseguruen kontratazioa, segurtasun alarmak, su-itxalgailuen erosketa eta mantentzea, etiketatzaileak, papertegi eta zorroak, kristal eta establezimenduen garbiketa, telefonia, elektrizitatea, web orrialdeak sortzea eta IKT berriekin lotutako bestelako zerbitzuak jasotzea...). Identifikatutako behar komunak arabera, erosketa-taldeak sor daitezke.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduak

5.2.2.

Bazkide diren komertzioei zuzendutako zerbitzuen eskaintza edo tipologia bat definitzea


Azalpena

Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreetako erreferentzialtasuna sendotzeko, Salkin Elkartearen funtzionalitatea areagotzea da helburua. Horretarako, Elkarteko bazkideei, merkataritza aholkularitza integralaren antzeko zerbitzu-sorta zehaztu eta eskaintzea proposatzen da: merkataritzarekin lotutako araudia, Udalarekin eta oro har administrazioarekin gai burokratiko eta administratiboetan bitartekaritza eta laguntza eskaintzea, orientazio komertziala, prestakuntza, zerbitzu komertzialen kontratazioa (erosketa zentralarekin loturikoak), IKTak ezartzeko aholkularitza zerbitzua (web, salmenta elektronikoa, sare sozialak...)

Zerbitzu eskaintza zehaztu eta bere funtzionamendua azaltzeaz gain, garrantzi handia izango du horiek eskuratzeko sistema garbi adieraztea.

Horretarako, garrantzi handikotzat jotzen da Salkin Elkartek zuzeneko harreman jarraituak izatea bai bere bazkideekin, baita zerbitzu horiek modu egokian eskaintzen lagunduko dioten bestelako erakundeekin ere.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduak

Jarduera proposamena 5.3.

Sektorea eta asoziazionismoa sustatzeko ekintzak

Planteamendua

Ezinbestekotzat jotzen da establezimendu bakoitzak besteengandik bereizteko gara dezakeen diferentziazio estrategia propioak, bere jarduera adarrarekin edota sektore osoarekin identifikatu eta bat egiteko estrategiekin orekatzea, horrela gizartean herri mailako izaera integral duen sektore gisa agertuz.

Hori dela eta, garrantzitsua da sektorearen integrazioa islatuko duten irudia eta sinboloak landu eta proiektatzea (herrian merkataritza sektore bat badela eta funtzionatzen duela adieraziko dutenak), eta horiekiko establezimenduen atxikipena argi uztea. Horrek, batetik, eskaintzaren integrazio sektoriala sustatu eta bestetik, sektorearen irudi jakin bat transmitituko du eskariaren artean (antolatua, artikulatua eta Andoaingo komunitatean txertatuta). Eta aldi berean horrek, identifikazio berriak eragingo ditu, atxikimendu berriak, eta baita erosketara ohitura berriak ere bezeroen aldetik.

5.3.1.

IKT-ek baliatuta, Salkin Elkartearen komunikazioa hobetu eta sustatzea: web orria sortzeko aukera eta sare sozialen presentzia iraunkorra sustatzea


Azalpena

Helburua Salkinen komunikazioa hobetzea da, bai herritarrekin, baita -eta batez ere- bere eskari erreal eta potentzialarekin. Batik bat gazteekiko, erosketak bertako establezimenduetan egiteko ohitura sustatzeko.


Horretarako, zera proposatzen da:


- Salkinek web gune intuitibo, dinamiko eta interaktibo bat sortzea. Bertan, Elkartearen ezaugarri, funtzionamendu eta bazkide egiteko sistema azaldu daiteke eta horrekin batera, bestelako informazio interesgarria, adibidez: bazkide den establezimendu bakoitzaren informazioa (logotipoa, helbidea eta harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa, geokopakena google map-en bidez, bere web orrira daraman link-a, etab); hileko buletin informatikoa, hala nahi duten pertsona guztiei e-mailez bidaliko zaiena (horretarako interesgarria litzateke eskaintza eta eskari komertzialaren datu oinarri egokiak izatea)...
- Salkinek sare sozialetan duen presentzia eta komunikazioa hobetzea proposatzen da (Facebook, Twitter, Instagram...), gero eta handiagoa baita, komunikabide gisa sare sozialek duten eragina -batik bat gazteen artean-
- Salkinen QR kodea sortu eta komunikazio euskarri desberdinetan modu sistematikoan erabiltzea proposatzen da, horrek teknologia mugikorren bidez informazioa momentuan eskuratzeko aukera ematen baitu
- Elkarteak izan dezakeen web gunean, interesgarria litzateke, bazkide diren establezimenduen produktuak erosketara elektronikoa bidez eskuratzeko aukera eskaini ote daitekeen aztertzea (beti ere, salmenta elektronikoa eskaintzeko interesatuta agertzen diren establezimenduak kontuan hartuta)

Lehentasuna



Epea





5.3.2.

Bazkide diren establezimenduentzat, Merchandising bateratua garatzea

Azalpena


Salkineko bazkide diren establezimenduek, gutxieneko merchandising komuna izateko aukera aztertzea proposatzen da.

Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen ikuspegi eta pertzepzio integrala sustatzea da helburua, bazkide diren establezimendu desberdinek erabilitako euskarri komunikatiboetan Salkinen logoa eta harekin harremanetan jartzeko sistemak erantsiz (telefonoa, izan dezakeen web gunea eta sare sozialak): papertegi-paketerian, zorroetan, web orrietan (Salkinen esteka jarri).


Helburua, finean, Salkinen «aterki marka» sustatuz, bere azpian dauden establezimenduen talde-irudi bateratua zabaltzea da, eskariari eskaintza komertzial artikulatu eta integralaren irudia transmitituz. Ekintza hau, «erosketa zentrala» zerbitzuaren baitan kudea daiteke, bazkideentzako komunak diren euskarriak eskuratzeari dagokionez (papertegi-paketeri euskarrien erosketa adibidez).

Ekintza hau abiatzeko, froga pilotu bat egin daiteke, bere funtzionamendua eta duen eragina testatzeko.


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoaingo Udala (eta Merkataritza Mahaiko eragileak)
- Salkin Elkartea
- Interesa duten establezimenduak
- Lan horietan espezializatutako enpresa

6. eremua

Eragileen sentsibilizazioa, artikulazioa eta inplikazioa

Jarduera proposamena 6.1.

Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzeko ekintzak

Planteamendua

Biziberritze sozio-komertzialeko jarduerak garatzeko oso garrantzitsua da lankidetzak publiko-pribatua behar bezala antolatu eta planifikatzea.

Bestalde, kontuan hartu behar da merkataritza eta ostalaritza sektorearen jarduerak Andoingo gizarte bizitzan txertatuta dagoela, eta ondorioz, bizitza horrek jarduerak horren dinamika baldintzatzen duela. Hori dela eta, ezinbestekoa da merkataritza eta ostalaritza jarduerak, beste esparruetan (kultur arloan, kirol arloan, arlo turistikoan, aisialdian, etab.) gertatzen denarekin modu iraunkor eta egituratuen konektatzea.

Aipatzen ari garen konexio honek, gizarte errealitate horretan eta antolatzen diren jarduerak desberdinetan, zuzenean eta zeharka eragiten duten eragile pribatu nahiz publikoen arteko antolaketa-, artikulazio- eta planifikazio-lana eskatzen du.

Gai honen inguruan, eta diagnostikoan jaso den bezala, establezimenduetako arduradunek ondorengo eskaerak egin dituzte, Andoingo Udalak burutu beharreko funtzioei dagokienean:

- ▶ Udalaren eta sektorearen artean harremanak eta komunikazioa areagotu.
- ▶ Establezimendu bakoitzaren arazoengatik inguruan interes handiagoa agertu (kudeaketa pertsonalizatuagoa)
- ▶ Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorearekin elkarlanean jarduteko interes eta inplikazio handiagoa.
- ▶ Salkinekin harreman fluxua erraztu eta elkarlan jarraitua izan: Udalaren inplikazio handiagoa bere dinamizazioan
- ▶ Udalaren eta establezimenduen arteko koordinazio hobetu, dinamizazio soziokomertzialerako ekintzak antolatzerakoan.

6.1.1.

Andoingo Merkataritza Mahaiaren funtzionamenduari jarraipena eman eta berau sustatzea

Azalpena

Merkataritzaren Mahaia sendotzeko, duen funtzionaltasuna areagotzea proposatzen da. Horretarako, ondorengo gaiak jorratzea planteatzen da:

- MIPBaren kudeaketa parte hartzailea eta adostua, herri administrazioaren (Udala, Buruntzaldeko Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa...) eta Salkinen artean
- Ostalaritzako azpi-mahai bat osatzeko aukera, sektore honen (Salkinen bidez ordezkaturata), herri administrazioaren eta udalerriz gaindiko ostalaritza eragileen artean (Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte) egon daitezkeen artikulazio eta koordinazio beharrak aztertzeko.
- Merkataritzarekin, ostalaritzaren eta zerbitzuekin loturiko gaien kudeaketa burokratiko-administratiboa errazteko, lankidetzeta mekanismo publiko-pribatuak ezarri. Helburua, ekintzailatza ekimenak eta merkataritza dinamizatzeko jarduerak garatzeko inizatibak martxan jartzeko erraztasunak ematea da: lokalak zabaltzeko araudia malgutu/egokitu; merkataritza lokalak berritzeko lanen araudia malgutu/egokitu, beren okupazioa eta martxan jartzea laguntzeko; laguntza ekonomikoen tramitazio azkartu, terrazak jartzeko kudeaketa azkartu.
- Landuko diren arloetarako lan-sistema bat finkatzea; lan taldeak definitu (parte hartuko duten eragileak eta garatu beharreko funtzioak); lan egutegia zehaztu; baliabideak eta horiek eskuratzeko sistema (finantziazio iturriak).


Lehentasuna



Epea



Aurrekontua



Eragileak

- Andoingo Udala
- Salkin Elkarte
- Mahaiaren funtzionamenduan, zein mahaiaren parte hartzeko, interesa duten erakunde eta elkarteak

6.1.2.

Jarduera soziokulturalak, turistikoak eta azoka izaerakok modu integralean programatzeko plataforma publiko-pribatua sortzea (Batzorde modura)


Azalpena

